



# Aurrera!

24. zk.

2006ko abendua

Informatika eta Telekomunikazioetako Teknologia Berriak Jendarteratzeko Aldizkaria

ITZko Bulego Teknologikoak argitaratua

## AURKIBIDEA

- Hitzaurrea 1. or.
- Aurreko buletineta agertutako akronimoak, siglak eta hitz teknikoak 2. or.
- 2006-2009ko ITPn aurki ditzakegun akronimoak, siglak eta hitz teknikoak 18. or.
- Kontratazio Publiko Elektronikoa abian da 24. or.
- Laburrak:
  - SaaS: Software as a Service
  - Sakelako telefonoek ez dute minbizia sortzen26. or.

**B**egien aurrean duzuen AURRERA buletin honen asmoa da geldialdi bat egin, bere ohiko formatua alde batera utzi eta laster argitara emango den eta zuetako askoren lankidetzaren fruitua den 2006-2009ko ITPn erabilitako hiztegi tekniko "ulertzeko", edo hobe esanda, kokatzeko giltzarria izatea.

Badakigu akronimo hauetako asko ingelesetik itzul zitezkeela, baina, ziur asko, itzulpen "gordinak" esanahia testuingurutik kanpora aterako luke, eta, horrez gain, kontuan hartu behar da testu tekniko askotan sigla horiek itzuli gabe agertzen direla. Jatorri saxoniarra duten akronimo horiez gain, 2006-2009ko ITPn gure erakundekoak diren siglak ere azaltzen dira, hau da, Eusko Jaurlaritzakoak; horiez ere hitz egingo du, eta beren esanahia ematen saiatuko gara.

2006-2009ko ITPn sigla hauek aurki daitezke, besteak beste: B2B, TIC (IKT), BPM, PEAGE, IKUS, DWDM, RCAGV, VoIP, Wi-Fi, VPN eta ECDN. Batzuk guztiok ezagutzen ditugu, beste batzuk, berriz, orain hasi zaizkigu ezagun egiten, baina akronimo horietako asko orain harrigarria irudituko litzaigukeen normaltasunez erabiliko ditugu guztiok hemendik gutxira.

Interneten bilaketa egiten badugu, informazio-teknologiekin eta komunikazioekin lotutako akronimo-hiztegi pila azalduko zaizkigu. Buletin honen xedea ez da alfabetikoki ordenatutako akronimoen taxonomia egitea eta haien esanahia ematea, ezta pentsatu ere; akronimoak eta siglak haien esanahia ulertzeko erreferentzia gisa balioko duen esparruan sartuta, testuinguruarekin, adieraztea da egin nahi duguna, eta esparru hori, hain zuzen ere, orain arte argitaratu diren AURRERA buletin aleak dira.

Buletin horietan akronimoak, siglak eta hitz teknikoak azaldu dira, eta horien azalpena emateko saiaketa egin da (*hiztegia* izeneko atalean); akronimo, sigla eta hitz tekniko garrantzitsuenak bilduko ditugu oroigarri gisa, eta ez da ahaztu behar horietako asko 2006-2009ko ITPn ere erabiltzen direla.



## AURREKO BULETINETAN AGERTUTAKO AKRONIMOAK, SIGLAK ETA HITZ TEKNIKOAK



Orain arte argitaratutako hogeita hiru AURRERA buletinetan azaldu diren siglak eta hitz teknikoak bildu ditugu, oro har "hiztegia" izeneko atalean agertutakoak eta ezker aldeko eta eskuinaldeko marjinetan azaldu ohi direnak.

		Zk. Buletina / Artikulua
<b>ActiveX</b>	Microsoften Visual Basic-ekin idatzitako kontrol multzoa; COM eta OLE osagaiak barne hartzen dituzte, ataza- eta funtzio- sorta handia automatizatzeko erabilgarriak. ActiveX kontrolak programa gehien-gehienetara txerta daitezke, hala nola, nabigatzaileetara (Internet Explorer eta Netscape) eta Microsoft Office-en aplikazioetara.	1/ Garapen-ingurunea
<b>ADSL</b>	<i>Asymmetric Digital Subscriber Line</i> . Abonatu-linea digital asimetrikoa. Kobrezko parean oinarritutako ohiko telefono-linearen bitartez, datuen transmisioan (Internetarako konexioa) abiadura azkarra izatea ahalbidetzen duen teknologia. Asimetrikoa da, izan ere, datuen transferentzia-abiadura desberdina da erabiltzailearengana (8 Mbps-eraino) edo erabiltzailearengandik (1 Mbps-eraino).	3/ ADSL
<b>Adware</b>	Funtzionatzen ari den bitartean produktuen edo zerbitzuen publizitatea erakusten duen softwarea.	22/ Ziberdelituak
<b>Agregadoreak</b>	Ingeleseko <i>feeds</i> -etik dator, «haziak». Agregadore bat edo albiste agregadore bat web edukiak <i>feed</i> eran biltzeko software mota bat da. Agregadoreak <i>feed</i> hori biltzen du aukeratutako weblog edo bitakoretan argitaratutako albisteekin eta istorioekin, eta <i>feed</i> horretan produzitu diren nobedadeak edo edizioak erakusten dizkigu; hau da, gure azken irakurketatik zein berri edo istorio diren berriak esaten digu.	23/ Web 2.0
<b>AICC</b>	<i>Aviation Industry CBT Committe</i> . Hegazkigintza-industriako prestakuntza-sistementzako elkarrengarritasun-estadarrak garatzen dituen arren, bere gomendioak beste sektore batzuek ere jarraitzen dituzte.	9/ E-Learning
<b>Always on</b>	Internetera beti konektatuta dauden gailuak. Gaur egun telefonoarekin gertatzen den moduan, markaketa- eta autentifikazio-sekuentzia luzea pasa beharrik gabe, Internet erabiltzeko aukera egongo da.	4/ Ipv6 Internet berria
<b>Antibirusa</b>	Birusak aurkitzeko, disko gogorra arakutzen duen programa txiki bat da. Birusen bat aurkituz gero, horren berri eman eta ezabatzeko aukera ematen digu.	3/Segurtasuna: birusak
<b>API</b>	<i>Application Program Interface</i> . Programa aplikatzeko interfazea. Sistema eragileko zerbitzuetarako sarbidea izateko, aplikazioek dei ditzaketen funtzio dokumentalen multzoa.	1/ Java plataforma edo Microsoft
<b>Applet</b>	Zuzenean sistema eragiletik exekutatu ezin daitekeen programa; beste aplikazio batetik exekutatu behar da. OLEren ( <i>Object Linking and Embedding</i> , objektuen estekadura eta txertaketa) arrakastaren ondorioz, Applets-ak gorakada nabarmena izaten ari dira. Ondorengo ezaugarri hauek dituzte: fitxategi txikiak, multiplataforma, seguruak eta egokiak Interneteko aplikazio txikiarako.	1/ Java plataforma edo Microsoft
<b>Aseguratzeko eskakizunak</b>	<i>Assurance requirements</i> . <i>Target Of Evaluation</i> -en (TOE, ikus 15. or.) ezaugarriak dira, TOE-k ematen duen segurtasuna eraginkorra dela eta ondo ezarrita dagoela bermatzen dutenak.	20/ COMMON Criteria



#### ZER DA AKRONIMO BAT

- Hitz bat bezala ahoskatzen den sigla mota bat da akronimoa (adibidez: (H)artutako (I)mmuno( E)skasiaren (S) indromea), edo baita bi hitz edo gehiagoren elementuen batasunetik, edo beste konbinazio batzuetatik, eraturako hitza ere (adibidez: ofimatika, gaztelaniazko OFI(cina) (infor)MATICA-tik).

#### ZER DA SIGLA BAT

- 1.- Hitz bakoitzaren lehenengo letrak; batura horretatik izen bat ateratzen da. 2.- Idazkera laburtzeko, zeinuak edo hitzak ezabatzen dituen laburdura edo idazkera oro.

#### Zk. Buletina / Artikulua

<b>ASP</b>	Bi kontzeptu definitu ditzake: ERPz (ikus 6. or.) hornitzen duten enpresek ASP kontzeptua <i>Applications Service Providers</i> gisa erabiltzen dute (aplikazio-zerbitzuen hornitzaileak), eta hortik interpreta dezakegu "aplikazio batzuen erabilera alokatzen duten enpresak" direla. Alokairu-sistema hau batez ere enpresa txikiek erabiltzen dute, ERP pakete osoa erostea, adibidez, oso garesti aterako bailitzaieke. Bestalde, web inguruneaz hitz egiten badugu, orrialde dinamikoak aipatzen ari gara, luzapena html izan beharrean asp dutenak. Web orrialde batetik, datu-base batean (adibidez, Access edo Oracle) gordeta dauden datuak eskuratu, aldatu eta ezabatzeko aukera ematen digute orrialde hauek. Horregatik, kasu honetan, ASPk <i>Active Server Pages</i> (zerbitzari-orrialde aktiboak) esan nahi du.	6/ ERP eta CRM
<b>AT&amp;T</b>	<i>American Telephone and Telegraph</i> . Telekomunikazioen arloan aritzen den lehenengotariko enpresa, eta handienetarikoa. <a href="http://www.att.com">www.att.com</a>	4/ Ipv6 Internet berria
<b>Attachment</b>	Eranskina. E-mail mezuarekin batera doan fitxategia. E-mail sistemetariko askok e-mailtan testu-fitxategiak bidaltzea soilik onartzen dute. Attachment-a fitxategi bitarra edo formateaturako testu-fitxategia bada (MS-Word dokumentu baten modukoa), bidali baino lehen kodetu egin behar da, eta jaso ondoren, deskodetu.	3/ Segurtasuna: birusak
<b>Auditoretza</b>	Irizpena emateko, instalazio edo sistema –finantzariora, informatikoa, ...– jakin baten egoera aztertzeaz arduratzen den diziplina. Normalean kanpoko auditore batek edo auditore independente batek egiten du.	1/ E-business eta e-commerce
<b>Autentifikazioa</b>	Pertsona bat identifikatzeko prozesua da, adibidez, erabiltzaile-izena eta pasahitza oinarri hartuta. Autentifikazioak pertsona bat berak dioen hori dela bermatzen du, baina ez du inolako informaziorik ematen pertsona horren sartzeko eskubideen inguruan.	2/ Segurtasuna posta elektronikoa
<b>BackBone</b>	Bizkarrezurra. Sare nagusi gisa edo lehen mailako "hodi" gisa aplikatzen da, eta bertatik pasatzen da informazio-trafikoa.	4/ Ipv6 Internet berria
<b>BIOS</b>	<i>Basic Input Output System</i> . Sarrera eta Irteeren Oinarrizko Sistema. Memoria iraunkor batean, ROM (Read Only Memory, memoria hila) edo EPROM (Erasable Programmable Read Only Memory, ROM ezabagarri eta programagarria) motakoan, gordetzen den programa. Ordenagailuko oinarrizko gailuak abiarazteko hasierako eragiketak egitea ahalbidetzen du, bai eta ondoren ekipoaren kontrola hartzen duen sistema eragilea kargatu ahal izateko oinarrizko zerbitzuak eskaini ere.	3/ Segurtasuna: birusak
<b>Birusak</b>	Erabiltzaileak ezer jakin gabe ordenagailuan kargatu diren programak edo kodeak dira; erabiltzailearen beraren baimenik gabe exekutatu ohi dira. Ia birus guztiek ugaltzeko ahalmena dute.	3/ Segurtasuna: birusak
<b>Blogosfera</b>	Ingeleseko blogosphere hitzetik dator. Termino horren azpian biltzen dira weblog guzti-guztiak.	21/ Blog korporatiboak
<b>BPM edo BPMS</b>	<i>Business Process Management Systems</i> . Enpresa Prozesuen Administrazio Sistemak edo Negozio Prozesuen Kudeaketa Sistemak. BPM, funtsean, software-irtenbideen, negozio-prozesuen eta jarraipen-irtenbideen bilduma da. Behin horiek konbinatuta, eragin funtzionala, antolakuntza-eragina eta sistema-eragina aztertzea ahalbidetzen dute, baldin eta barruko lan-prozesuetan aldaketa bat sartzen badugu.	18/ BPM

## Zk. Buletina / Artikulua

<b>BSC</b>	<i>Balanced Scorecard</i> . Aginte Taula Integrala.	14/ Aginte-taulak
<b>Business Intelligence</b>	Antolakuntza-adimena. BI sistema tradizionala eragiketa-sistemetatik (ERP, CRM, ...) eta kanpoko informazio-iturrietatik datuak atereaz eraikitzen da; datu horiek optimizatutako datu-egituretan eraldatu eta txertatzen dira. Horretarako, neurrira egindako programak garatu edo ETL ( <i>Extraction, Transformation and Load</i> , Ateratzea, Eraldatzea eta Kargatzea) tresnak erabiltzen dira; horiek, interfaze grafikoen bitartez, prozesu horiek azkar batean gauzatzen dituzte. Behin DataWarehouse-a eraikita, erabiltzaileek Query, OLAP eta datu-meatzaritza tresnak erabiltzen dituzte kostuak murrizteko eta diru-sarrerak eta irabaziak handitzeko erak identifikatzeko.	6/ ERP eta CRM
<b>Call Center</b>	Deigunea. Funtsean, operadore batzuk dira, atzean pertsonak egon daitezke edo, bestela, automatikoak izan daitezke; telefono-deiak jaso edo egiten dituzte, helburu jakin batekin komunikazio horien jarraipena egitea ahalbidetzen duen softwarearekin lagunduta.	23/ Contact Center
<b>Callback</b>	Deia itzultzea. Bezero batek erakunde batekin hartu-eman izatearen (informazioa eskatu eta/edo zerbitzu-motaren bat eskatu) ekintza deskribatzeko erabiltzen den terminoa da. Enpresak bezeroarekin normalean telefono-dei baten bidez izaten duen komunikazioarekin (berehala edo geroago) bukatzen da prozesua.	23/ Contact Center
<b>CBT</b>	<i>Computer-Based Training</i> . Ordenagailuen erabilera, bai erabiltzaileak trebatzeko bai trebakuntza kudeatzeko, barne hartzen duen terminoa da. <i>E-learning</i> -en termino hau WBTrren ( <i>Web Based Training</i> , Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien erabileraren bidezko trebakuntza) kontrako termino gisa erabiltzen da gero erabiltzailearen ordenagailura deskargatu eta bertan exekutatzeko diren edukiak identifikatzeko.	9/ E-Learning
<b>CDMA</b>	<i>Code-Division Multiple Access</i> . Kode Bidezko Bereizketako Sarbide Anizkoi-tza. Teknologia zelular digitala espektroen sakabanatze-teknikekin. Ez dio erabiltzaile bakoitzari frekuentzia bat esleitzen; aitzitik, kanal bakoitzak (pseudo-ausazko sekuentzia digitalekin kodetua) espektro erabilgarri guztia erabiltzen du. Lehenengo aldiz II. Mundu Gerran erabili zuten ingelesek, alemanen aurka, hain zuzen ere, alemanen transmisioak kaltetzeko.	3/ Komunikazio mugikorak
<b>CEO</b>	<i>Chief Executive Officer</i> . Burua (exekutibo ofizial burua). Enpresa edo konpainiako hierarkian dagoen kargu gorena da.	21/ Blog korporatiboak
<b>Cluster</b>	Biltegitratze-taldea, biltegitratze-unitate baten barruan sektore-multzo bati lotutakoa, normalean.	2/ Windows 2000-ren migrazioa
<b>CMS</b>	<i>Content Management System</i> . Edukiak Kudeatzeko Sistema. Esplicituki web-era bideratutako edukiak kudeatzeko –sortzen direnetik artxibatzen diren arte– balio duten ataza eta prozesuak biltzen ditu sigla honek. Aplikazio hauek orrialdeetako elementuak sortzea ahalbidetzen diete enpresei, hala nola, testuak, multimedia grafikoa eta applets-ak, bai eta era deszentralizatuan mantentzea eta argitaratzea ere.	10/ CMS
<b>CODEC</b>	Kodetzaile-deskodetzailea. Transmittitu nahi diren audio- eta bideo- seinaleak formatu analogikoan egon ohi dira, eta, hortaz, informazio hori sare digital baten bitartez transmititzeko, informazioa eraldatu egin behar da metodoren bat erabilita, eta seinale digital bihurtu behar da. Hori egin ondoren, transmititu ahal izateko, seinaleak trinkotu eta multiplexatu egin behar dira. Lan horretaz arduratzen den gailua CODEC-a da; sarearen beste aldean alderantzizko lana egiten du urruneko puntutik datozen datuak zabaldu eta erreproduzitzeko.	20/ Bideokonferentzia: Oinarrizko kontzeptuak
<b>COM</b>	<i>Component Object Model</i> . Osagaien Objektuen Eredua. Software-osagai bitarretatik abiatuta, aplikazioak garatzea ahalbidetzen duen software-arkitektura da.	1/ Java plataforma edo Microsoft
<b>CRM</b>	<i>Customer Relationship Management</i> . Bezeroekiko Harremanen Kudeaketa. Bezeroarekin dagoen harremana hobetzeko enpresek erabiltzen duten softwarea da. Bezeroaren eta enpresaren arteko harremanaren etapa guzti-guztiak sisteman gordeta daude, eta, horrela, bezeroek bildutako esperientzien inguruko informaziorako sarrera dute operadoreek.	6/ ERP eta CRM

<b>CTCPEC</b>	<i>Canadian Trusted Computer Product Evaluation Criteria.</i>	20/ COMMON Criteria
<b>DB Korporatiboak</b>	Enpresaren informazio guztia biltzen duen datu-basea da. Datu-basea erabiltzaileek kontsulta dezakete, erabakiak hartzeko tresnak eraiki eta erabiltzeko.	14/ Aginte-taulak
<b>DES</b>	<i>Data Encryption Standard.</i> Datuak enkriptatzeko estandarra. Hasiera batean IBMk garatutako algoritmoa da, Luzifer deiturikoa; sailkatu gabeko informazio sentikor guztiak enkriptatzeko estandarra da. DESek 64 bit-eko blokeak enkriptatzen ditu, biraketa eta ordezkapenaren bitartez; horretarako 64 bit-eko gakoa erabiltzen du, eta horietatik 8 paritate-bit-ak dira.	2/ Segurtasuna posta elektronikokoan
<b>DHTML</b>	<i>Dynamic HTML.</i> HTML dinamikoa. Teknologia honek web orrialdeei elkarrekintza handiagoa ematea ahalbidetzen du, efektu berezien eta animazioen bidez, besteak beste.	1/ Java plataforma edo Microsoft
<b>DM</b>	<i>Desktop Mapping.</i> Mahai gaineko kartografia. DM hauek datuak bistartzeko eta analizatzeko aplikazio sinpleak dira; osagai espazialak dituzte sistema mikroordelagailuentzat, eta GIS batek (ikus 7. or.) baino kostu txikiagoa du (baita prestazio murriztagoak ere). Programazioan, kartografian, geodesian, etab. adituak ez diren erabiltzaileek datu espazialak erabiltzea ahalbidetzen dute tresna hauek, erabiltzaileek testu-prozesadoreak, kalkulu-orriak edo datu-baseak erabiltzen dituzten antzeko moduan.	13/ GIS edo SIG
<b>DSS</b>	<i>Decision Support System.</i> Erabakien sistema euskarria. Analista batzuek DSSak honela definitzen dituzte: "datu-prozesu interaktiboa eta irudikapen-sistema bisuala (grafikoa), erabakiak hartzeko prozesuan laguntzeko erabiltzen dena. Ezaugarri hauek izan behar ditu: erraza izatea, erabakiak hartu behar dituenak erabili ahal izan dezan; informazioa formatu eta terminologia ezagunean erakutsi behar du eta selektiboa izan behar du informazioa eskaintzerakoan (erabiltzailea larritzea saihestu behar da)".	14/ Aginte-taulak
<b>E-Administrazioko zerbitzu paneuroparrak</b>	Mugaz gaindiko zerbitzu publikoak dira (Europa osoari dagozkionak), estatuko edo erkidegoko administrazio publikoek Europaz gaindiko sare telematikoen bitartez herritarrei eta enpresei hornitzen dizkietenak.	19/ IDABC elkarrengarritasuna
<b>E-business</b>	Negoio elektronikoa. Informazio teknologien aholkularitza; neurriera egingako aplikazioak garatzea, web orrialdeak ezartzea eta sareak ezartzea eskaintzen du.	1/ E-business eta e-commerce
<b>E-commerce</b>	Merkataritza elektronikoa. Tresna-multzoari aplikatzen zaio, Internet bidez sar daitekeen denda birtualak sortzeko.	1/ E-business eta e-commerce
<b>EDI</b>	<i>Electronic Data Interchange.</i> Datu-trukaketa elektronikoa. DISA ( <i>Data Interchange Standards Association</i> ) garatutako protokolo estandarra enpresen artean datuak transmititzeko; aldaketa gogorra pairatzen ari da merkataritza elektronikoaren garapenaren eraginagatik, Interneten hedapena baino lehen sortu baitzen.	7/ XML
<b>EIS</b>	<i>Executive Information System.</i> Informazio exekutiboaren sistema edo gerentziarako sistema. Datuak lortzeko lana, laburtzekoa eta gerentziarentzat erarik ulergarrienean aurkeztekoa automatizatu egiten du.	14/ Aginte-taulak
<b>E-Learning</b>	Ikaskuntza elektronikoa. Teknologia berriak, eta batez ere Internet, baliatzen duen prestakuntza mota oro hartzen du barne termino honek. Kostuak murriztea eta erabiltzailearen gaikuntza ( <i>learning</i> ) hobetzea ahalbidetzen duen teknologia ( <i>electronic</i> ) identifikatzen ditu terminoak.	9/ E-Learning
<b>Elkarrengarritasuna</b>	Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) sistemek datuak, informazioa eta ezagutzak trukatzeko duten gaitasuna.	19/ IDABC elkarrengarritasuna
<b>Enkapsulazioa</b>	Informazio ezkutua eta modularra ezartzea ahalbidetzen duen lengoaiaren gaitasuna.	1/ Garapen-ingurunea

		Zk. Buletina / Artikulua
<b>Enkriptatu</b>	Mezu arrunt irakurgarria hartu (testu garbia) eta lehenengo begiratuan ulergaitzak diren karaktereen nahas-masa bihurtu (testu enkriptatua).	2/ Segurtasuna posta elektronikoa
<b>eProcurement</b>	Hornikuntza elektronikoa. Hornitzaileekin harremana errazten duen eta lizitazio elektrikoa ahalbidetzen duen tresna.	12/ Web irisgarritasuna
<b>Ergonomia</b>	Jakintza-alor arteko zientzia aplikatua, laneko produktuen, postuen eta ingurune fisikoen diseinura bideratua, 40ko hamarkadan sortu zena. Gizakia-Makina-Ingurumena hirukoaren optimizazio integrala du helburu nagusia, langileari ahalik eta neke txikiena eraginda ahalik eta etekin handiena lortzeko. Legeria aplikagarria: 488/97 Errege Dekretua (BOE, 1997/4/14). Bistaratze-pantailak dituzten ekipoein lan egiteko segurtasunerako eta osasunerako gutxieneko xedapenak.	15/ Ergonomia
<b>ERP</b>	<i>Enterprise Resource Planning</i> . Enpresentzako Baliabideen Plangintza. Soluzio hauek ezarri eta garatzen dituzten enpresen artean, nabarmentzekoak dira honako hauek: Baan, BEA Systems, IBM, Meta4, Navision, Oracle, Peoplesoft, RPS eta SAP.	6/ ERP eta CRM
<b>Eskakizun funtzionalak</b>	<i>Functionality requirements</i> . Mehatxuen aurrean, nahi den segurtasun-jokabidea zehazten dute.	20/ COMMON Criteria
<b>Eskanerra</b>	Informazio analogikoa bihurtzen duen periferikoa; inprimatutako orrialdeak edo argazkiak euskarri digitalean jar daitezke, esaterako, eta, hartara, ordenagailu baten bidez biltegitatu eta kudea daitezke datuak. Beste eskaner mota bat "eskaner dedikatuak" deiturikoak dira, adibidez, ekipo baten erabiltzaile onargarriak identifikatzeko hatz-markaren bidez informazioa hartzen dutenak.	2/ Bluetooth
<b>Extranet</b>	Erakundeak ez diren pertsonen ere sartzeko aukera duten Intraneta. Sartze-maila desberdinak ditu kanpotarrentzat. Erabiltzaile-izena eta extranetaren zein zatirako sarbidea duen zehazten duen gakoa dituzten pertsonak bakarrik sartu ahal izango dira.	1/ E-business eta e-commerce
<b>FCITS</b>	<i>Federal Criteria for Information Technology Security</i> .	20/ COMMON Criteria
<b>FIPS</b>	<i>Federal Information Processing Standards</i> .	20/ COMMON Criteria
<b>Flashbios</b>	Flash motako memoria, hau da, programa bidez egunera daitekeena (disketetik edo disko gogorretik), bere lekutik atera gabe, BIOSa duen lekutik, alegia (ikus 3. or.).	3/ Segurtasuna: birusak
<b>FLOSS</b>	<i>Free Libre Open Source Software Study</i> . Europako Batzordeak babestutako azterlana da, Software Librearen (SL) garatzaileen gaineko informazioa biltezeko egina. FLOSS hori osatzeko, elkarrizketak egiten dira SLa erabiltzen duten enpreekin, horrek jarduera ekonomikoari zein onura (zuzenekoak eta zeharkakoak) ekartzen dizkion ikuste aldera.	11/ Europa eta Software Libre
<b>Gateway</b>	Sarrera-ataria. Hainbat transmisio-bide bateratzen dituen pasabidea. Bideokonferentziaren kasuan, IP sarearen inguruak (H.323) eta RDSI inguruak (H.320) elkarrekin lotzen ditu.	20/ Bideokonferentzia: Oinarrizko kontzeptuak
<b>GC</b>	Gestión del conocimiento (Ezagutzaren kudeaketa). <i>Knowledge Management</i> . Erakunde baten barruko ezagutzaren bilketa, antolaketa, finketa, azterketa, banaketa eta trukea kudeatzeko sistema. Dagozkien pertsonen, behar den garaian, moduan eta lekuan, beharrezko den ezagutza lortu ahal izateko bidea da. KMak, ona izateko, datu eta esperientzietatik abiatuta ezagutza berriak sortzeko gaitasuna izan behar du, bai eta lehendiko ezagutzak antolatu, banatu eta ordenatzeko ere.	11/ Ezagutzaren kudeaketa
<b>GDSS</b>	<i>Group Decision Support Systems</i> . Taldeko erabakiak hartzeko euskarri-sistema.	14/ Aginte-etaulak
<b>Geoerreferentziak</b>	Prozesu honen bidez, lurrazaleko posizioa identifikatzen da, haren koordenatuen bidez.	13/ GIS edo SIG

<b>GIS</b>	<i>Geographic Information System.</i> Geografia Informazio Sistema (GIS). Beste definizio batzuk: "Askotan aipatzen diren datuak errazago lortu, kudeatu, erabili, aztertu, moldatu eta ateratzeko diseinatutako hardware, software eta prozeduren sistema" [ <i>National Center for Geographic Information and Analysis</i> , N.C.G.I.A.]. "Lurrazalari buruzko datuak lortu, biltegitatu, integratu, erabili, aztertu eta azaltzeko ordenagailuen sistema" [ <i>Association for Geographic Information</i> (AGI) elkartearen eta Edinburgoko Unibertsitateko Geografia Sailaren hiztegia].	13/ GIS edo SIG 3/ GIS korporatiboa
<b>Gizarte Ingeniaritza</b>	Ingelese; <i>Social Engineering.</i> Hackerrak erabiltzaileari, hura "informazio sentikorra" ezagutarazten ari denaz ohartu gabe, informazioa (pasahitza, esaterako) ateratzeko edota erabiltzaileak ekintza zehatz bat egitea lortzeko (birusa duen artxibo bat irekitzea, adib.) erabiltzen dituen amarru, gezur eta gainerako teknika guztiak biltzen ditu.	13/ Gizarte Ingeniaritza
<b>Gizarte-sareak</b>	<i>Social networking.</i> On line komunitate-sareetan sozializatzea; munduko edozein txokotako pertsonekin kontaktatu daiteke bertan, gehien komeni zaizkigun gaien eta asmoen inguruan aritu daiteke, hasi elkarrizketa txotxo-loak izatetik eta negoziok egin edo ezagutzak partekatzeraino.	23/ Web 2.0
<b>GPL</b>	<i>General Public License.</i> Lizentzia Publiko Orokorra. Software Librearen Fundazioak sortutako lizentzia, softwarea banatzeko, aldatzeko eta erabiltzeko baldintzak zehazten dituena. Lizentzia honek estalitako softwarea Software Libre delako adieraztea du helburu.	19/ LINUXen mitoak
<b>GPRS</b>	<i>General Packet Radio Services.</i> Irrati bidezko paketeen zerbitzu orokorra. Informazioa paketetan banatzen du bidali aurretik, eta informazioa jasotzerakoan, aldiz, bateratu egiten du berriro. GPRSarekin, datuak azkarrago joaten dira, eta duela gutxi arte GSM sareetan ezinezkoak ziren aplikazioetarako aukera ematen du. GPRSaren banda-zabalera soilik informazioa bidaltzerakoan edo jasotzerakoan erabiltzen da, eta, beraz, hainbat erabiltzailek parteka dezake.	3/ Komunikazio mugikorak
<b>Grid</b>	Sareta. "Grid konputazionala hardware eta software azpiegitura bat da, eta erabiltzaileari hau eskaintzen dio: gaitasun konputazional handietarako sarbide segurua (dependable), sendoa (consistent), sarkorra (pervasive) eta merkea (inexpensive)". [Ian Foster eta Carl Kesselmanen " <i>The Grid Blueprint for a Future Computing Infrastructure</i> " liburutik ateratako definizioa ( <i>Computational Grids</i> kapitulua)]. "Anatomy of the Grid: Enabling Scalable Virtual Organizations" (2000) artikuluan, Ian Foster, Carl Kesselman y Steven Tueckek arkitektura orokor bat proposatzen dute, <i>Grid Computing</i> -arekin lotutako aplikazio, toolkit, API, SDK eta abarrentzat.	17/ GRID
<b>Groupware</b>	Lantalde bateko erabiltzaileei informazioa trukatzeko aukera ematen dien softwarea edo aplikazio-multzoa, banaketa geografikoaren problematikari aurre eginez. Groupware soluzioen bidez, informazio guztia gune bakarrean bildu ahal izango da eta erakunde edo lantalde baten eskakizunen arabera kontsultatu (eta sailkatu). " <i>Groupware</i> : elkarlana eraginkorragoa izatea ahalbidetzen duen informazioaren teknologia". [Coleman eta Shapiro, 1992]	21/ Lankidetzeta-ingurune a
<b>GSM</b>	<i>Global System for Mobile Communication.</i> Komunikazio mugikorretarako sistema globala. Telekomunikazio Administrazioen Europako Konferentziak (CEPT) mundu osoko komunikazio mugikorren sare publiko digitala eratzeko estandar gisa sortutako zelula-sistema. GSMk banda estua erabiltzen du denborako multiplexazioarekin, eta horri esker, erradiofrekuentzia berean 8 dei egin daitezke aldi berean. Gaur egun 900 MHz-ko frekuentzian ez ezik, 1.800 eta 1.900 MHz-koetan ere erabiltzen da.	3/ Komunikazio mugikorak
<b>GUI</b>	<i>Graphics User Interface.</i> Erabiltzailearen interfaze grafikoa. Testu hutsak ez ezik, marrazkiak eta ikonoak ere erabiltzen dituen lan-ingurune bisualari ematen zaion izen generikoa.	1/ Java plataforma edo Microsoft
<b>Hacker</b>	Pirata informatikoa. Baimenik gabe beste ordenagailuetan sartzen aditua den programatzailea, oro har, segurtasun-mekanismoei iseka egiteak dakarren lorpenarengatik, nahiz eta hacker batzuk beste ordenagailuetan kalteak eragiten edota haietatik informazioa lapurtzen aritzen diren ( <i>crackerrak</i> ).	1/ E-business eta e-commerce
<b>Hash</b>	Laburpen-funtzioa. Zentzu bakarreko funtzioa da, luzera arbitrarioko artxibo edo dokumentu bat luzera konstanteko kate batekin lotzen duena (gaur egun 160b erabiltzen da irteeran). Hash funtzio ezagunenak hauek dira: MD5, SHA1, RIPMED 160.	2/ Segurtasuna posta elektronikoa

<b>Heuristika</b>	Birus berri edo posibleren bat detektatu ahal izateko informazioerik ez dagoenean erabiltzen den teknika. Fitxategiak aztertzen ditu, antibirusak egiaztatuko duen informazioa lortzeko, eta hark erabakitzen du birus bat izan daitekeen ala ez.	3/ Segurtasuna: birusak
<b>Hoaxak</b>	Ingeleseko <i>hoax</i> «gezurra, zurrumurrua» hitzetik dator. Gezurrezko zurrumurruak zabaltzen dituzten mezuak. Egileek badakite aurrez jasotzaileak arduratuko direla gezurra zabaltzen jarraitzeaz (katuak botilatan sartuta saltzen dituzten enpresetatik hasi eta Nostradamusen sasi-iragarpenetara arte). Beste batzuek existitzen ez diren birusez ohartarazten dute, eta horrek ez du egoera larritu besterik egiten (komunikazio-lineak betez). Aldian-aldean, mezu batek birus beldurgarri batez ohartarazten du eta jarraibide erraz batzuk ematen ditu birus horri aurre egiteko. Argibide horiei jarraituz, erabiltzaileak PCko Windows sistema eragilearen zati diren arxibo batzuk ezabatzen ditu, ez birusa. Kasu honetan, erabiltzailea da lan guztia egiten duena. Ez dago horri aurre egiteko antibirusik.	3/ Segurtasuna: birusak 13/ Gizarte Ingeniaritza
<b>HTML</b>	<i>HyperText Markup Language</i> . Marka hipertestualen lengoia. Web zerbitzari batean dokumentuak ikusteko aukera ematen duen lengoia da. HTMLrekin .html fitxategiak sortzen dira. Gaur egun, Interneten informazioa gordetzeko estandarra bihurtu da, eta bertara sar daiteke edozein plataforma edo sistema eragiletatik.	1/ E-business eta e-commerce
<b>HTTP</b>	<i>HyperText Transfer Protocol</i> . Nabigatzaileei web-orrietako informazioa behar bezala interpretatzen laguntzen dien arau-multzoa. Aipaturiko web-helbide batean <a href="http://...">http://...</a> ageri bada, informazioaren edukia HTTP estandararekin bateragarria dela adierazten du.	1/ Java plataforma edo Microsoft
<b>IDA</b>	<i>Interchange of Data between Administrations</i> . Administrazioen arteko datu-trukea. Erakundeen arteko datu-trukea ikertzeko Europar Batasunaren barruan sortutako erakundea.	11/ Europa eta Software Librea
<b>IDABC</b>	<i>Interoperable Delivery of European eGovernment services to public Administrations, Businesses and Citizens</i> . Hiritar eta enpresentzako zerbitzu paneuroparrak garatzeko 2005eko eEurope Ekintza Planean aurreikusitakoa gauzatzeko ezinbesteko tresna da. Mugaz haraindiko zerbitzuetan zentratzen da IDABC. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/387/CE Erabakia, sektore publikoari, enpresei eta hiritarrei elektronikoki kudeatzen diren zerbitzu paneuroparrak emateari buruzkoa, da IDABCren 2005-2009 aldirako Programaren lege-oinarria.	19/ IDABC elkarreragingarritasuna
<b>IEEE</b>	<i>Institute of Electrical and Electronics Engineers</i> . Erakunde honek batzorde bat du; LTSC ( <i>Learning Technology Standards Committee</i> ), estandariza daitezkeen e-learning teknologiaren hainbat alderdi aztertzen dituena.	9/ E-Learning
<b>IETF</b>	<i>Internet Engineering Task Force</i> . Estandar bihurtuko diren zehaztapenak garatzen ditu. IPv6a garatzeaz arduratu da. 20 taldek osatzen dute, eta horietako bakoitzak arazo zehatz bati heltzen dio. <a href="http://www.ietf.org">www.ietf.org</a>	4/ Ipv6 Internet berria
<b>IIOP</b>	<i>Internet Inter-ORB Protocol</i> . Interneteko elkarreragingarritasunerako estandarizatutako protokolo bat zehazten du, eta produktu ezagunenetan oinarritutako beste ORB batzuekin elkarreragiteko aukera ematen du.	2/ Windows 2000-ren migrazioa
<b>IMS</b>	<i>Instructional Management System Global Learning Consortium</i> . E-learning soluzioen enpresa hornitzaileak ez ezik, e-learning kontsumitzaileak ere biltzen dituen partzuergoa (unibertsitateak, etab.).	9/ E-Learning
<b>Interfazea</b>	Programa informatiko edo sistema eragile baten ageriko zatia da (botoiak, leihoak, menuak, etab.), informazio-trukerako erabiltzailearekin komunikatzeko aukera ematen duena. Bi gailuren arteko lotura egiten duen elementua da, datuak behar bezala komunikatu direla egiaztatzeko. Ezagunenak interfaze paraleloa eta seriekoa dira.	2/ Windows 2000-ren migrazioa 19/ LINUXen mitoak
<b>Internet</b>	TCP/IP protokoloan oinarritutako mundu-sarea, milioika ordenagailu, komunikabide gisa, elkarrekin lotzen dituena. <i>World Wide Web</i> -en (ezagunagoa da <a href="http://www">www</a> laburduraz) edo HTML formatuko fitxategi-sistemaren oinarria da.	1/ E-business eta e-commerce
<b>Intranet</b>	Entitate baten barne-sarea, Interneten antzera prestatua, baina sarbide mugatua duena. Interneten teknika berak erabiltzean oinarritzen dira, mantentzearen kostua txikia izaten da eta nabigatzaileen bidez sartzen da baliabideetara (adibidez: Jakina).	1/ E-business eta e-commerce



<b>IPv4</b>	Interneteko protokoloaren 4. bertsioa. RFC 791n dago jasoa. [RFC: <i>Request For Comments</i> . Kontsultatu IETFren webgunean].	4/ Ipv6 Internet berria
<b>Iragazkia</b>	Ingeleseko <i>splitter</i> -etik «bereizgailua» dator. Zigarro-paketearen tamainako gailu honek datuen ahotsa bereizteko balio du. Telefonoaren hartunearen ondoan ezartzen da (PTR; kaxa horretatik iristen da helbidera telefono-lineako kobre pare). ADSL erabiltzeko, adibidez, beharrezkoa da iragazki mota hau.	3/ ADSL 5/ Streaming
<b>IRC</b>	<i>Internet Relay Chat</i> . Hitzaldiak emateko sistema. Hainbat parte-hartzailearen artean Internet bidez aldi berean testuak trukatzeko aukera ematen duen sistema. IRC bezero bakoitzarekin, hau da, hizketarako kanal beraren barruko parte-hartzaile bakoitzarekin, komunikatzen den IRC zerbitzari batean oinarritzen da sistema.	3/ Segurtasuna: birusak
<b>Iritzi-emaileak</b>	Gai jakin baten inguruko iritzi, hausnarketa edo kritikak agertzeko blogez baliatzen diren pertsonak dira. Normalean, gustura ez dauden produktu edo zerbitzu baten erabiltzaileak (bezeroak) izaten dira; horiek euren haserrea edo ezinegona ezagutarazi nahi dute eta enpresaren izena zalantzan jartzen dute.	21/ Blog korporatiboak
<b>ISDN edo RDSI</b>	<i>Integrated Services Digital Network</i> . Zerbitzu integratuen sare digitala. Ahotsa, bideoa eta datuak telefono-linea digitalen edo telefono-kable arruntan bidez bidaltzeko nazioarteko komunikazio estandarra. ISDNk 64 Kbps-ko abiadura transferitzen ditu datuak. Telefono-konpainia gehienek bi linea eskaintzen dituzte aldi berean. Linea bat ahotsarentzat erabil daiteke, eta bestea datuentzat, edo bi lineak datuentzat erabil daitezke; hartara, 128-Kbps-ko abiadura lortuko dugu, egungo modem azkarrenek ematen duten datu-abiaduraren hirukoitza.	2/ Bluetooth
<b>ISP</b>	<i>Internet Service Provider</i> . Interneteko zerbitzu-hornitzailea. IAP ( <i>Internet Access Providers</i> ) ere esaten zaio. Interneterako sarbidea ematen duen konpainia. Zerbitzuak software pakete bat, identifikazioa (erabiltzaile-izena) eta pasahitza ditu. Konpainia handiek ere erabiltzen dituzte ISPak, Interneterako sarbide zuzena izateko. Hauek dira ISP ezagunenak, besteak beste: Telefónica, Euskatel, Jazzfree, Navegalia, etab.	2/ Windows 2000-ren migrazioa
<b>ITSEC</b>	<i>Information Technology Security Evaluation Criteria</i> .	20/ COMMON Criteria
<b>Java</b>	Sun Microsystems enpresak garatutako programazio-lengoaia. Horren erabilera ez dago Internetera mugatua. WWW-ren bidez edozein ordenagailutan funtzionatzeko gai diren aplikazio txikiak ( <i>applets</i> ) sortu eta web-orriei dinamismoa emateko aukera eskaintzen du.	1/ Garapen-ingurunea
<b>Java Virtual Machine</b>	Java makina birtuala edo JVM. Lanean dihardueneko edozein ordenagailutarako jarraibideak interpretatzen dituen softwarea, instalatu ondoren, aplikazio berak PC edo Mac batean ukitu beharrik gabe funtzionatu ahal izateko aukera ematen duena.	5/ Zerbait gehiago JAVAri buruz
<b>JavaBeans</b>	Sun Microsystemsek garatutako espezifikazioa, Java objektuek nola elkarrengaitan duten zehazten duena. Espezifikazio hau betetzen duen objektuari <i>JavaBean</i> izena ematen zaio eta <i>ActiveX</i> kontrolaren antzekoa da (ikusi 2. or.).	1/ Garapen-ingurunea
<b>Joke</b>	Txistea, xeblekeria. Ez dira birusak, baizik eta gustu txarreko txantxak; birus bat hartu dutela sinetsarazten zaie erabiltzaileei.	3/ Segurtasuna: birusak
<b>KM</b>	<i>Knowledge Management</i> . Ezagutzaren kudeaketa (KM). Erakunde baten barruko ezagutzaren bilketa, antolaketa, finketa, azterketa, banaketa eta trukea kudeatzeko sistema. Dagozkien pertsonak, behar den garaian, moduan eta lekuan, beharrezko den ezagutza lortu ahal izateko bidea da. KMak, ona izateko, datu eta esperientzietatik abiatuta ezagutza berriak sortzeko gaitasuna izan behar du, bai eta lehendiko ezagutzak antolatu, banatu eta ordenatzeko ere.	11/ Ezagutzaren kudeaketa
<b>Konfidentzialtasuna</b>	Norberari dagozkion datu jakin batzuk erreserban gorde direla ikusteko norbanako orok duen eskubidea da konfidentzialtasuna. Datu horiek zabalteak ikasketa eta lan arloko kalteak eta kalte moralak eta psikologikoak erakar lezikioke pertsona horri. Konfidentzialtasun-printzipio horretatik eratorritzen da bakoitzak bere eginbeharrak egiten ari den bitartean topa ditzakeen informazioak ez zabaltzeko erakundeko kideek duten betebeharra. Buletineko artikuluan, arrotzek posta irakur ez dezatela bermatzearekin dago lotuta.	2/ Segurtasuna posta elektronikoa

## Zk. Buletina / Artikulua

<b>LAN</b>	<i>Local Area Network.</i> Tokiko sarea. Elkarri lotuta dauden eta baliabideak (memoria, periferikoak edota aplikazioak) partekatzen dituzten ordenagailuen multzoa.	1/ Garapen-ingurunea 2/ Bluetooth
<b>LBS</b>	<i>Location Based Services.</i> Lokalizazioan oinarritutako zerbitzuak.	13/ GIS edo SIG
<b>LMS</b>	<i>Learning Management System. Ikaskuntza kudeatzeko sistema.</i> Prestakuntzaren kudeaketa automatizatzen duen software aplikazioa. LMSak aukera ematen du erabiltzaileak erregistratzeko, hainbat hornitzailearen ikastaroen katalogoa edukitzeko eta ikasleen jarraipen-datuak erregistratzeko, bai eta hainbat txosten mota egiteko ere. Normalean, ez du edukiak sortzeko tresnarik ematen; hainbat jatorritako edukiak kudeatzen ditu. Gaur egun era honetako plataforma asko daude. Hauek dira adibiderik ezagunenak: Learning Space, Docent, etab.	9/ E-Learning
<b>LOPD (DBLO)</b>	Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, datu pertsonalak babesteari buruzkoa. Lege hau eta ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretua, datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurrien araudia onesten duena, dira beren jarduerara gauzatzeraoan datu pertsonalak erabiltzen dituzten enpresa eta profesional guztiek nahitaez bete beharreko lege-esparrua osatzen duten oinarritzko bi xedapenak.	8/ LOPD
<b>LTD</b>	Lurreko Telebista Digitala. Proiektu honen helburua da, teknologia analogikoan oinarrituta dagoen egungo ekipamenduaren ordez, teknologia digitalean oinarritutakoa jartzea.	6/ Lurreko Telebista Digitala 10/ eEUSKADI
<b>Lux</b>	Argitze-unitatea (lx) da. Lumen batetik argi-fluxua jasotzen duen metro koadro bateko azaleraren argiztatze-maila da. Kanean, adibidez, 5.000 lux-etik gorako balioetara irits daiteke.	15/ Ergonomia
<b>Makroak</b>	Kalkulu-orriak edo testu-prozesatzaileak bezalako programetan zenbait prozesu automatizatze asmatutako jarraibide-segida txikiak dira.	3/ Segurtasuna: birusak
<b>MARC formatua</b>	<i>MAchine Readable Cataloging.</i> Makina bidez irakur daitekeen katalogazioa. Katalogo automatizatuak eratzeko ezarri diren arau orokorrak dira.	4/ Z39.50 protokoloa?
<b>MCU</b>	<i>Multi Conference Unit.</i> Multi Konferentzia Unitatea. "Pieza" honek aldi berean bi puntu baino gehiago lotzeko aukera ematen du, puntu anitzeko bideokonferentzia-bilerak egiteko.	20/ Bideokonferentzia: Oinarritzko kontzeptuak
<b>Metadatuak</b>	Datuen gaineko datuak dira. Zer informazio dagon eta informazio hori non eta nola dagoen jakiteko arazoari erantzuten diote metadatuak. Azken finean, gordetako datuak deskribatzen dituzte.	14/ GIS korporatiboa
<b>Middleware</b>	Tarteko geruza. Bi aplikazio desberdin lotzen dituen softwareari aplikatzen zaio (bitarteko gisa jarduten du).	2/ Windows 2000-ren migrazioa
<b>Mikroprozesadorea</b>	Ordenagailu baten prozesu-unitatea duen zirkuitu elektronikoa. Mikroprozesadore batek jarraibideak bildu, deskodetu eta egikaritu egiten ditu bere barne-erregistroak erabiliz, eta kanpoko memoria bideratzen du.	2/ Windows 2000-ren migrazioa
<b>MIS</b>	<i>Management Information Systems.</i> Gerentzia Informazio Sistemak.	14/ Aginte-taulak
<b>MIT</b>	<i>Massachusetts Institute of Technology.</i> Teknologia berriak ikertzen dituen erakunde ezaguna. www.mit.edu	4/ Ipv6 Internet berria
<b>MODEMA</b>	MOduladore eta DEModuladore terminoen kontrakzioa. Seinale digital bat analogiko bihurtzeko prozesua deskribatzen dute, telefono-linea konbentzional baten bidez bidali eta alderantzizko prozesua egiteko. Hala, bidalitako informazioa beste ordenagailu batek berreskura dezake jasotzaile gisa.	3/ ADSL

<b>Modu gurutzelarkatua / Modu gurutzelarkatu gabea</b>	Txartel grafikoak pantailako birmarrazketa zein modutan egiten duen adierazten dute. Gurutzelarkatua: txartel grafikoak pantaila birmarrazten du bi pasalditan (lehenengo linea bakoitiak eta gero bikoitiak). Ondorioz, pantailan dardara txiki bat hautematen da, eta horrek irakurketa zailtzen du. Gurutzelarkatu gabea: pasaldi bakoitzean pantailako linea guztiak birmarraztean datza, baina irudiak dardar txikirik egin ez dezan, birmarrazketa gutxienez 75 Hz-ko abiaduran egin behar da. Merkatuan badira bereizmen handian 87i Hz hartzen dituzten monitoreak, baina "i" txikiak adierazten digu freskatze hori modu gurutzelarkatuan hartzen dutela, eta, beraz, 60 Hz baino askoz ere okerragoa da hori (bisualki).	15/ Ergonomia
<b>NAS</b>	<i>Network Attached Storage</i> . Sarera konektatutako biltegitratze sistema, hainbat zerbitzariren artean partekatua.	4/ SAN vs NAS
<b>NEON</b>	<i>New Era of Networks</i> . Konpainia aitzindari eta garrantzitsuenetako bat da, konpainien aplikazio, sistema, plataforma eta protokoloen "lengoiaren oztopoak" saihesteko diseinatutako produktu batzuen bidez <i>e-businessa</i> ahalbidetzen duena. NEONen produktu eta zerbitzuek konpainiei Interneten teknologiarra egokitzen eta <i>e-businessaren</i> mundu bizkorrean egunean mantentzen laguntzen diete. (www.neonsoft.com)	1/ E-business eta e-commerce
<b>Network Computing.</b>	Idea honetan oinarritzen da Sun Microsystems enpresaren filosofia. Eta honetan datza: sarea ordenagailua da eta, beraz, zerbitzuak sarean daude, ez ordenagailu zehatz batean.	5/ Zerbait gehiago JAVari buruz
<b>Offshore</b>	Hitzez hitz, itsasoan, kostatik urrun. <i>Offshore</i> edo " <i>contact center</i> -etako deslokalizazioa" finkatuta dago AEB, Erresuma Batua edo Frantzia bezalako herrialdeetan; zerbitzuak ezarri dituzte Indian, Irlandan edota Tunisian. Joera honek jarraitzen du Hegoafrikan, Marokon, Argentinan, Txilen edota Kolonbian. Duela bospasei urte, <i>contact center</i> espainiar gehienak Madrilen eta Bartzelonan zeuden, hau da, erabaki ekonomikoetarako leku nagusietan, bezeroak zeuden lekuan. Pixkanaka, Espainian barne-deslokalizazioa gertatu da kudeaketa-gastuak nabarmen murriztearen bidez inbertsioa gehiago itzultzeko aukera ematen duten hirietara. Eta zerbitzuaren bermeak osoak dira, bezeroa dagoen hiri bereko plataformen kalitate-estandar eta teknologia berberen bidez.	23/ Contact Center
<b>Ondoretasuna</b>	Kodea berrerabiltzeko klase berriak eta lehendiko klaseetan oinarritutako jarrerak zehazteko aukera ematen duen hizkuntzaren ezaugarria.	1/ Garapen-ingurunea
<b>OPAC</b>	<i>On-line Public Access Catalog</i> . Sarbide publikoko online katalogoa. Liburutegiek beren bibliografia-funtsak kontsultatzeko eskaintzen duten zerbitzua.	4/ Z39.50 protokoloa?
<b>OpenOffice</b>	Produktibitate ofimatikoko pakete edo suitea, <i>StarOffice</i> Sunen produktutik abiatuta sortua. Besteak beste, testu-tratamenduko programa ( <i>Writer</i> ), kalkulu-orria ( <i>Calc</i> ) eta aurkezpen-sortzailea ( <i>Impress</i> ) ditu.	19/ LINUXen mitoak
<b>ORB</b>	<i>Object Request Broker</i> . Bezeroen eta zerbitzarien artean <i>middleware</i> gisa jarduten duen osagaia.	2/ Windows 2000-ren migrazioa
<b>Osotasuna</b>	Bidalitako edo jasotako mezu zein fitxategietan hirugarrenek inolako manipulaziorik egin ez dutela egiaztatzen du.	2/ Segurtasuna posta elektronikoa
<b>PDA</b>	<i>Personal Digital Assistant</i> . Laguntzaile pertsonal digitala. Eskuko ordenagailu txikia.	18/ Mugikortasun irtenbideak
<b>PEAGE</b>	Plan Estratégico de Administración y Gobierno Electrónicos (Administrazio eta Gobernu Elektronikoen Plan Estrategikoa). Eusko Jaurlaritzaren ekimena; euskal e-Administrazioaren bultzada eta aurrerapena koordinatzea du helburu.	23/ Digitalizazio eskuliburua
<b>Phisher</b>	<i>Phishing</i> -a "egiten" duen pertsona (ikus hurrengo sarrera).	22/ Ziberdelituak
<b>Phishing</b>	Ingeleseko <i>fishing</i> «arrantza» hitzetik dator. Amuen bidez erabiltzaileak "arrantzatzeko" ekintzari dagokio, haiei buruzko isilpeko informazioa lortzeko. « <i>Password harvesting fishing</i> »-en kontrakzioa dela ere esaten da (pasahitzak lortu eta arrantzatzea). 1996an hitz egin zen lehenengo aldiz <i>phishing</i> -ari buruz, <i>hackerren</i> "alt.2600" albisteetan.	22/ Ziberdelituak

<b>Plataforma</b>	Hardware eta software konbinazio estandarizatu izendatzeko terminoa; horren gainean gauzatzen dira hainbat aplikazio. Oro har, prozesadore jakin batean oinarritutako zirkuiteria ekartzen du, bai eta sistema eragile bat ere.	1/ Java plataforma edo Microsoft
<b>PLATEA</b>	eAdministrazioarako plataforma teknologikoa. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan administrazio elektronikoko zerbitzuak emateko sistema informatikoak eraikitzeke ekintzak gidatzeko balio duen esparru estrategikoa ezartzen duen dokumentua.	23/ Digitalizazio eskuliburua
<b>Polimorfismoa</b>	Objektu desberdinetara bidalitako mezu batean; mezua jaso duen objektuaren izaeraren arabera izango da ondorioa.	1/ Garapen-ingurunea
<b>Posta elektronikoa</b>	Ingelesean, <i>Electronic Mail</i> , edo laburtuz, <i>e-mail</i> . Sare baten bitartez (adibidez, Internet) erabiltzaileei mezua bidaltzea eta jasotzea ahalbidetzen dien sareko zerbitzua da. Mezuekin batera, mota askotako fitxategiak ere bidal daitezke (bideoak, irudiak, idatziak, etab.). Ohiko postarekin duen analogiatik dator bere izena, mezua utzi eta jasotzen diren bitarteko postontziaren (kasu honetan, zerbitzariak) erabileragatik, hain zuzen. Zerbitzu hau Ray Tomlinson-ek sortu zuen 1971n. Garai hartan, mezularitza-sistema jadanik ezagutzen zen ordenagailu bakoitzean (erabiltzaile batek baino gehiagok partekatzen zuten), baina ez zegoen sare bateko beste ordenagailu batera mezua bidaltzea ahalbidetzen zuen sistemarik. Tomlinson-ek a bildua (@) aukeratu zuen erabiltzailearen eta ordenagailuaren (postaren laukitxo dagoen tokia) arteko zatitzaile gisa, ingelesez @ "at" (deklinabide-kasua, inesiboa -non-) esaten baita. Hala, "lierni@makina.com" lierni makinan.com irakurtzen da.	18/ E-mailaren zazpi bekatuak
<b>PP</b>	<i>Protection Profile</i> . TOEa erabiliko den ingurunea (ikus 15. or.) (dituen arriskuak), segurtasun-helburuak eta segurtasun-helburuak betetzeko TOEak bete beharreko segurtasun-baldintzak zehazten ditu.	20/ COMMON Criteria
<b>PSTN</b>	<i>Public Switched Telephone Network</i> . Nazioarteko telefono-sistema, ahots-datuak garraiatzen dituzten kobrezko kableetan oinarritua. Hau guztia, teknologia digitalean oinarritutako laneko telefono berrienekin alderatuta. POTS gisa ere ezaguna da.	2/ Bluetooth
<b>QoS</b>	<i>Quality of Service</i> . Zerbitzuaren kalitatea.	6/ Ahotsa IPren gainean
<b>RCAGV</b>	Red Corporativa Administrativa del Gobierno Vasco (Eusko Jaurlaritzaren Administrazio Sare Korporatiboa). Ahots- eta datu-sarea izendatzeko erabili ohi den laburdura.	18/ Mugikortasun irtenbideak
<b>RDSI edo ISDN</b>	Red Digital de Servicios Integrados (Zerbitzu Integratuen Sare Digitala). <i>Integrated Services Digital Network</i> . Ahotsa, bideoa eta datuak telefono-linea digitalen edo telefono-kable arrunten bidez bidaltzeko nazioarteko komunikazio estandarra. ISDNk 64 Kbps-ko abiadura transferitzen ditu datuak. Telefono-konpainia gehienek bi linea eskaintzen dituzte aldi berean. Linea bat ahotsarentzat erabil daiteke, eta bestea datuentzat, edo bi lineak datuentzat erabil daitezke; hartara, 128 Kbps-ko abiadura lortuko dugu, egungo modem azkarrenek ematen duten datu-abiaduraren hirukoitza.	2/ Bluetooth
<b>RMI</b>	<i>Remote Method Invocation</i> . Metodoen urruneko deia. Banatutako programazioaren beraren teknologia da, Javan erabat oinarritutako objektuetara bideratutakoa. Teknologia honen oinarritzko ideia da VM ( <i>Virtual Machine</i> ) batean exekutatzeko ari diren objektuak VM desberdinetan exekutatzeko ari diren objektuen metodoak deitzeko gai izan daitezela. Kontuan hartu behar da VMak makinan bertan edo sare batera konektatuta dauden makina desberdinetan egon daitezkeela.	2/ Windows 2000-ren migrazioa
<b>Roaming</b>	Ibiltarritza, ingelesezko <i>Roam</i> -etik dator, «harat-honat ibili, noraezean ibili». GSM operadore baten erabiltzaileek beren telefono mugikorra GSM duen edozein herrialdetan erabili ahal izatean datza, operadoreek beren artean, bai Europar bai atzerrian, sinatuta dituzten akordioei esker.	3/ Komunikazio mugikorrak

<b>RSA</b>	Rivest, Shamir and Adelman-en akronimoa, teknikaren asmatzaileak. RSA algoritmoa zenbaki oso luzeak faktORIZATZEKO bide eraginkorrik ez egotean oinarritzen da. Hori dela eta, RSA gako bat ondorioztatzeak ordenagailu pila bat eta denbora luzea eskatzen du. RSA algoritmoa enkriptazio-estandar bihurtu da industria indartsuentzat, batez ere Internetera datuak bidaltzeko. Software produktu askotan dago, <i>Netscape Navigator</i> -en eta <i>Microsoft Internet Explorer</i> -en barne. Teknologia hain boteretsua denez, Estatu Batuetako gobernuak haren esportazioa mugatu egin du. DES RSA baino azkarragoa da, eta horregatik, gehiago erabiltzen da Interneten eta merkataritza elektronikoa.	2/ Segurtasuna posta elektronikoa
<b>RSVP</b>	<i>Resource Reservation Protocol</i> . Erreserbak ezartzeko protokoloa. Protokolo honen bitartez ezartzen dira gaur egun seinaleak sareetan; hartzailearen eskaerak prozesa ditzake, baina ezin du zehaztu zein ilara itxaron behar duen edo zein bide erabili behar den fluxu zehatz baterako. Horrez gain, bere negoziazioa konplexua da eta atzerapenak sortu ohi ditu.	6/ Ahotsa IPren gainean
<b>RTC</b>	Red Telefónica Conmutada (Telefonia Sare Konmutatua –TSK–). Ohiko telefono-linea.	18/ Mugikortasun irtenbideak
<b>SAN</b>	<i>Storage Area Network</i> . Biltegitratze sareak.	4/ SAN vs NAS
<b>Sare telematikoa</b>	Datu-transmisioen sistema osoa. Azpiegitura eta konexio fisikoak izateaz gain, horien gainean ezarritako zerbitzu-mailak eta aplikazioak barne hartzen ditu, datuen trukea bitarteko elektronikoen bidez ahalbidetzeko administrazio publikoen barruan eta euren artean, bai eta administrazio publikoen eta enpresen eta herritarren artean ere.	19/ IDABC elkarrengin-garritasuna
<b>SCAM</b>	Engainua, maula edo iruzurra egiteko asmoarekin; eskatu ez den posta (SPAM) HOAX (gezurra edo txantxa) batekin nahasten du. Bidalitako mezuzaren edukia eta xedea dela-eta, "Lan-eskaintza faltsuak" izena ere hartzen dute.	22/ Ziberdelituak
<b>SCM</b>	<i>Supply Chain Management</i> . ERPren oinordeko naturala (ikus 6. or.). <i>Enterprise Resource Planning</i> -en (ERP) eboluzio naturala da. ERP tradizionalak transakzio-prozesuen euskarri izatea ahalbidetzen zuen galdera-erantzunaren bitartez, enpresaren ikuspegia izatera behartzen zuen moduluen bitartez eta enpresaren errealitatea eta historia islatzen duten datuen kontrol zentralizatua ahalbidetzen zuen. Hala eta guztiz ere, SCM sistema berriak euskarri gisa jarduten dute erabakiak hartzerakoan, eta produktzio arloko gaitasunen eta mugen ikuspegi orokorra ahalbidetzen dute. Gainera, egoera desberdinen simulazio interaktiboa egitea posible egiten dute.	12/ Web irisgarritasuna
<b>Scripts</b>	Makroen antzeko programak dira, baina lana ez dute aplikazio baten barruan egiten, sistema eragilearen komando-mailan baizik.	3/ Segurtasuna: birusak
<b>SCSI</b>	<i>Small computer system interface</i> . Ekipo informatiko txikien sistema-interfazea. Gailu periferikoen konexio-estandarra, 1979tik Estandar Nazionalen Amerikako Institutuak (ANSI) garatu duena. Helbideratze logiko eta ez fisikoan oinarritzen da; ordenagailuaren ataka bakarrarekin eta konexio sekuentzialak eginez, 7 gailu periferikora arte (SCSI2 estandarrarekin 14) izatea ahalbidetzen du, hala nola, modemak, CD-ROM irakurleak eta inprimagailuak.	4/ SAN vs NAS
<b>SGML</b>	<i>Standard Generalized Markup Language</i> . Markatzeko lengoia orokor estandarra. Dokumentuak antolatze eta etiketatzeko sistema; nazioarteko estandarra da, inolako sistemari edo gailuri lotuta ez dagoen modu elektronikoko testuaren irudikapen metodoak definitzeko erabiltzen dena.	7/ XML
<b>SharePoint</b>	Konpartitzeko topagunea. Bertsio bat baino gehiago dago. Egun "Windows SharePoint Services" (WSS) izenaz ezagutzen denaren aurretik "SharePoint Team Services" egon zen. Horregatik esaten da "SharePoint Team Services" produktu-familia honetako 1. bertsioa dela eta WSS 2. bertsioa. Eusko Jaur-laritzak "Windows SharePoint Services" erabili du azken hilabete hauetan egindako proba pilotuei eta 2. bertsioa "Sharepoint Portal Server" izenekoaren bilatzaileari euskarria emateko. Bukatzeko, esan behar da "Windows SharePoint Services" Microsoft Windows Server 2003 delakoan barneratuta dagoela. Ezagutza konpartitzea ahalbidetzen du.	21/ Lankidetzaren ingurune a

## Zk. Buletina / Artikulua

<b>SIE edo EIS</b>	<i>Executive Information System</i> . Informazio exekutiboaren sistema edo gerentziarako sistema. Datuak lortzeko lana, laburtzekoa eta gerentziarentzat erarik ulergarrienean aurkeztekoa automatizatu egiten du.	14/ Aginte-etaulak
<b>SIG</b>	Sistema de Información Geográfica (Geografia Informazio Sistema –GIS–). Ingelesez, <i>Geographic Information System</i> (GIS). Beste definizio batzuk: “Askotan aipatzen diren datuak errazago lortu, kudeatu, erabili, aztertu, moldatu eta ateratzeko diseinatutako hardware, software eta prozeduren sistema” [National Center for Geographic Information and Analysis, N.C.G.I.A.]. “Lurrazalari buruzko datuak lortu, biltegiatu, integratu, erabili, aztertu eta azaltzeko ordenagailuen sistema” [Association for Geographic Information (AGI) elkartearen eta Edinburgoko Unibertsitateko Geografia Sailaren hiztegia].	13/ GIS edo SIG 14/ GIS korporatiboa
<b>SILICE</b>	Sistema de Información para la Licitación y Contratación Electrónica (Lizitazio eta Kontratazio Elektronikorako Informazio Sistema). Ondasun eta zerbitzu informatikoen erosketari aplikagarri zaizkion gida teknikoak. Dokumentuak elektronikoki aurkezteko estatuko proiektua; horren bitartez, ahalmenei lotutako dokumentuak, adibidez, jakinarazi eta transmititu egiten dira. Ondoren, PLYCA (Lizitazio eta Kontratazio Administratiboko proiektua) aplikagarria sortu zen hortik, Kanariaeko gobernuak ezarritakoa. Horrekin erakutsi nahi dutena da «bitartezko elektronikoa, informatikoa eta telematikoa erabiliz administrazio publikoen lizitazioan eta kontratazioan eraginkortasuna hobetzeko» hasierako helburua betetzat jo daitekeela.	22/ eKONTRATAZIOA: beste erreferentzia batzuk
<b>Sistema eragilea</b>	Erabiltzailearen eta ordenagailuaren artean komunikazioa ahalbidetzen duen programa edo software multzoa da; horren bitartez, PCaren baliabide guztiak modu eroso eta eraginkorrean kudeatzen dira.	19/ LINUXen mitoak
<b>SMS</b>	<i>Short Message Service</i> . Mezu laburren zerbitzua. GSM telefono mugikorrek mezuak bidali eta jasotzeko duten ahalmena. Hitzez, zenbakiz eta karaktere alfanumerikoz osatuta egon daitezke. GSMren ohiko kodetzea erabiltzen bada, mezuaren gehieneko luzera 160 karakterekoa da.	3/ Komunikazio mugikorak
<b>SOAP</b>	<i>Simple Object Access Protocol</i> . Objektu sarbiderako protokolo sinplea. Mezuen protokoloa da, XMLn oinarritutakoa, web zerbitzuei “hitz egitea” ahalbidetzen diena. UserLand-eko Dave Winer-ek diseinatutako XML-n (XML-RPC izenekoa) oinarrituta dagoen urruneko deien protokolo gisa hasi zen SOAP. Hortik abiatuta, 1999ko irailean, SOAPen 1.0 bertsioa sortu zen; bertan Microsoftek eta Don Box adituak aktiboki parte hartu zuten. Lehenengo bertsio hori IBMk eta SUNek mespretxatu egin zuten, garai hartan, IBMk eta SUNek ebXML izeneko asmo handiko proiektua baitzuten abian. Geroago, bai IBMk bai SUNek SOAP babesten zutela iragarri zuten ofizialki. 1.1 bertsioa 2000ko apirilean argitaratu zuten IBMk eta Microsoftek, eta orain garapen-prozesuan dago W3C-ko <i>Protocol Working Group</i> XMLn; uztailean zirriborroaren 1.2 bertsioa atera zuten.	7/ Interneten etorkizuna “Web zerbitzuak” al da”?
<b>Software Librea</b>	SL. Hainbat ingurutan, SL “dohaineakoaren” baliokidea dela pentsatzen dut erabiltzaileek; beste batzuetan, aldiz, edozein erabiltzailek lor dezakeen iturburu-kodea duen edozein software dela uste dute. Baina, zer esan nahi du “software libreak”? Normalean onartzen diren definizio guztiak “4 askatasunetan” oinarritzen dira: ikasteko askatasuna, nahi den bezala ikas eta analiza daiteke; erabiltzeko askatasuna, programa jasotzen duenak nahi duen bezala erabil dezake, edozein jarduerarako, edozein mementotan, edozein PCtan, edozein tokitan, helburu pribatuetarako, merkataritza helburuetarako, etab.; kopiaitzeko askatasuna, nahi duzunari banatu diezaiokizu, kobratuz ala kobratu gabe; hobetzeko askatasuna, aldatu egin daiteke, gure beharretara egokitu, pertsonalizatu, hobetu, zabaldu, funtzionaltasuna aldatu, akatsak zuzendu, etab.	11/ Europa eta Software Librea 16/ Software Librea: Autonomia erkidegoetako ekimenak
<b>Spackers</b>	Internetera konektatuta dauden PCak kontrolatzeko, <i>hacker</i> -en teknikak erabiltzen dituzten <i>spammer</i> -ak dira. Horren helburua da Internetera konektatutako ordenagailuak SPAM bidaltzeko erabiltzea; horrela, bidaltzeko gaitasuna handitzea bilatzen da, “anti-spam” teknika batzuk deuseztatzea eta bere nortasuna gordetzea.	16/ SPAM
<b>Spam</b>	Hartzaile kopuru handiari eskatu gabe bidaltzen zaizkion posta elektronikoko mezuak (oro har, publizitate-xedetarako) identifikatzen dituen terminoa da. Helbide elektronikoa, normalean, metodo alegalen bidez lortzen dira. Ingelesez UCE ( <i>unsolicited commercial e-mail</i> / eskatu gabeko merkataritza arloko posta elektronikoa masiboa), UBE ( <i>unsolicited bulk e-mail</i> / eskatu gabeko posta elektronikoa masiboa) edo <i>Junk e-Mail</i> (mezu baztergarriak) izenez ere ezagutzen dira.	3/ Segurtasuna: birusak 16/ SPAM

<b>Spammer</b>	Mezu baztergarrien banatze -teknika hori erabiltzen duen pertsona.	16/ SPAM
<b>Spear phishing</b>	Literalki, <i>phishing</i> lantzarekin. <i>Phishing</i> mota bat da (ikus 11. or.); <i>e-mail</i> bidalketa ez da masiboa, baizik eta askoz ere selektiboagoa. <i>Phisher</i> -ak pertsona jakin batek harremana zein banketxerekin duen zehatz- mehatz jakin dezake eta, hala, guztiz pertsonalizatutako <i>e-maila</i> bidal diezaioke.	22/ Ziberdelituak
<b>Splitter</b>	Bereizlea, iragazkia. Zigarro- paketearen tamainako gailu honek datuen aho- tsa bereizteko balio du. Telefonoaren hartunearen ondoan ezartzen da (PTR; kaxa horretatik iristen da helbidera telefono- lineako kobre parean). ADSL erabiltzeko, adibidez, beharrezkoa da iragazki mota hau.	3/ ADSL
<b>Spyware</b>	Pertsona ezer jakin gabe berari buruzko informazioa biltzen duen programa "zelataria".	22/ Ziberdelituak
<b>SQL</b>	<i>Structured Query Language</i> . Kontsulta- lengoia egituratua. Datu- base handietara sartzeko estandarra da. Kontsultak testu- kateen bidez sortzen dira; horiek datu- zerbitzarira bidaltzen diren hitz gakoak dituzte. Zerbitzariak erregistro- multzoa itzultzen du; honek zehaztutako baldintzak bete behar ditu. Kontsultak oso independenteak dira datuak biltzen edo jasotzen dituen plataformarekiko.	1/ Garapen- ingurunea
<b>SQLWindows</b>	Ingurune grafikoko aplikazioak garatzeko sistema da, 4. generazioko len- goiarekin (4GL) konbinatuta PCetan oinarritutako lan- estazioetarako.	1/ Garapen- ingurunea
<b>Streaming</b>	Ingeleseko <i>Stream</i> hitzetik («jario, isuri, jariatara edo jariatara»). Baina, egun bizi dugun testuingurua kontuan izanda, egokiagoa izango litzateke honela definitzea: "Soinu eta irudizko baliabide animatuen fluxu- transmisioa".	5/ Streaming
<b>TAW</b>	Web erabilerraztasuna neurtzeko testa; ingelesez, <i>Web Accessibility Test</i> . Asturiasko Trebakuntza Funtsak garatutako tresna.	12/ Web irisgarritasuna
<b>TCP/IP</b>	<i>Transmission Control Protocol/Internet Protocol</i> . 70eko hamarkadan gara- tutako komunikazio- estandarra. Horri esker, hori paketetan banatzen den mezua bidal daiteke; paketeak bide desberdinetatik joan daitezke eta hel- tzen direnean berriz elkartu behar dira. Interneten datuak bidaltzeko oinarri bihurtu da.	1/ E- business eta e- commerce
<b>TCSEC</b>	<i>Trusted Computer System Evaluation Criteria</i> .	20/ COMMON Criteria
<b>TOE</b>	<i>Target Of Evaluation</i> . Ebaluatu beharrekoak. Ebaluatuko diren produktua- ren zatiak dira.	20/ COMMON Criteria
<b>TTS</b>	<i>Text to speech</i> . Testua ahots bihurtzea.	18/ Mugikortasun irten- bideak
<b>UDDI</b>	<i>Universal Description, Discovery and Integration</i> . Web zerbitzuak erraz aurkitzeko datu- base unibertsala. Horren sortzaileak –Microsoft, Ariba eta IBM– jada ezarpen- testak egiten ari dira. UDDIri buruzko informazio guztia honako helbide honetan aurki dezakezue: <a href="http://www.uddi.org">www.uddi.org</a>	7/ Interneten etorkizuna "Web zerbitzuak" al da?"
<b>UDP</b>	<i>User Datagram Protocol</i> . Erabiltzailearen datagramen protokoloa. Proto- kolo hau ez dago konexiora konektatuta eta, beraz, ez du inolako errore- kontrolik egiten, nahiz eta badituen erroreak antzemateko mekanismoak. Bestela esanda, datagrama batean errorea antzematen denean, aplikaziora entregatu ordez, baztertu egiten da. UDP protokoloa ez dagoenez konexiora lotuta eta ez duenez mezurik bidaltzen datagramak jaso direla konfirma- tzeko, egokia da hori erabiltzea informazioa <i>multicast</i> moduan (xede asko- tara) edo <i>broadcast</i> moduan (xede guztietara) bidali nahi dugunean, ez baitu zentzurik xede guztien konfirmazioaren zain egotea bidalketarekin jarraitu ahal izateko. Hala eginez gero, igorlea kolapsatuta geratuko litzat- eke, bidaltzen duen pakete bakoitzeko paketea zenbat xedek jaso duten hainbat konfirmazio jasoko bailituzke.	5/ Streaming
<b>UMTS</b>	<i>Universal Mobile Telecommunications System</i> . Telekomunikazio mugiko- rren sistema unibertsala. Hirugarren generazioko teknologia mugikorra da eta, horren bidez, segundoko 2 Mbiteko abiadurainoko banda zabala eska- tzen duen informazioa bidaltzen du. Ahotsaz eta datuez gain, UMTSak au- dioa eta bideoa bidaltzen du munduko edozein lekutan kokatutako hari ga- beko gailuetara hari gabeko edo satelite bidezko sistema finkoa erabilia.	3/ Komunikazio mugi- korrak 4/ Ipv6 Internet berria

		Zk. Buletina / Artikulua
URL	<i>Universal Resource Locator</i> . Baliabideen Bilatzaile Unibertsala. Domeinuak eta agiriak Internet bidez izendatzeko sistema estandarizatua.	3/ ADSL
VHE	<i>Virtual Home Environment</i> . Etxea ingurune birtuala. Abonatu batek bere etxean dituen erraztasun guztiak edozein lekutatik izatea ahalbidetzen duen zerbitzu multzoa: posta elektronikoa, etxetresna elektrikoekiko elkarreragina, bankuetara sarbidea, osasun zerbitzuak, etab.	3/ Komunikazio mugikorak
Visual Basic	Basic lengoaiaren bertsio aurreratua. Objektuetara bideratutako eta gertaerei erantzuteko programazioa bezalako funtzionaltasunak barneratzen ditu. Microsoft Office-en nahiz beste programa batzuetan aplikazio desberdinetako programak garatzeko erabiltzen da.	1/ Java plataforma edo Microsoft
VoIP	<i>Voice over Internet Protocol</i> . Ahotsa IP-ren gainean. Ahotsa Internet bidez, TCP/IP protokoloez baliatuta, zuzenean transmititzea ahalbidetzen duen aplikazio multzoa.	6/ Ahotsa IPren gainean
VPN	<i>Virtual Private Network</i> . Sare pribatu birtuala. Kate publikoak erabilia sortutako sarea da. Adibidez, sistema batzuek Internet informazioa garraiatzeko bitarteko gisa erabilia sareak sortzea ahalbidetzen dute. Sistema horiek enkriptazioa eta beste segurtasun neurri batzuk erabiltzen dituzte sarrera baimendutako erabiltzaileak bakarrik sar daitezkeela eta informazioa bidean antzeman ezin daitezkeela ziurtatzeko.	1/ E-business eta e-commerce 2/ Windows 2000-ren migrazioa
W3C	<i>World Wide Web Consortium</i> . Nazioarteko industriaren partzuergoa da eta bere egoitzak Massachusettseko Institutu Teknologikoa (AEB), Europako Informatika eta Automatikako Ikerketarako Institutu Naizonala eta Japoniako Keio University Shonan Fujisawa Campus dira. 1994an eratu zen, Interneten bilakaera lortzeko protokolo komunak garatze aldera.	7/ XML
WAI	<i>Web Accessibility Initiative</i> . Web erabilerraztasuna gauzatzeko ekimena. W3C partzuergoak 1998an sortutako lan-taldea da. <a href="http://www.w3c.org/WAI">www.w3c.org/WAI</a>	12/ Web irisgarritasuna
WBT	<i>Web Based Training</i> . Ordenagailu bidez lagundutako prestakuntza-ikastaroak; horietan, ikastaroa web zerbitzarian dago eta erabiltzaileei eurek hala eskatuz gero baino ez zaie ematen, Internet edo Intranet bidez.	9/ E-Learning
WDSL	<i>Web Service Description Language</i> . Web zerbitzua deskribatzeko lengoia. Web zerbitzuari zer egin dezakeen, zein mezu onartzen dituen eta zein erantzun ematen dituen deskribatzea ahalbidetzen dion protokoloa da.	7/ Interneten etorkizuna "Web zerbitzuak" al da"?
Web	Armiarma-sarea. <i>World Wide Web</i> -en laburdura. Internet zerbitzarien multzoa, era guztietako datuak lortzea ahalbidetzen duena, besteak beste, fitxategi grafikoak, soinuzkoak edo testuzkoak; erreferentziak ditu (estekak edo <i>link</i> deiturikoak) edo beste zerbitzari batzuetako agiriak.	2/ Windows 2000-ren migrazioa
Weblog	Real Academia de la Lenguak (RAE, <a href="http://www.rae.es">www.rae.es</a> ) dioen bezala, <i>logbook</i> (edo log) kapitainak bidaiaiko gorabeherak jasotzeko erabiltzen zuen dokumentua zen (norabidea, abiadura, maniobrak eta nabigazioko gainerako istripuak); bestela esanda, hau nabigazio-egunkaria zen. Hala, beraz, <i>weblog</i> edo "webaren egunkaria", hitzez hitz, sareko nabigatzaileak bisitatu dituen guzteen zerrenda da. (Ez nahastu zerbitzariak automatikoki sortzen duen sistemako log edo erregistroarekin). <i>blog</i> hitza (" <i>weblog</i> "-aren laburdura) 2004an web orrietan gehien bilatu diren hamar hitzen zerrendaren buruan egon da, Merriam-Webster argitaletxearen arabera.	17/ Weblog
WiMAX	<i>Worldwide Interoperability for Microwave Access</i> . 802.16a arauaren izena da, <i>WiMax Forum</i> ean onartu zen hari gabeko estandarra da; banda-zabalera eta helmen handiagoa eskaintzen du <i>WiFi</i> estandarren familiak baino (802.11a, 802.11b eta 802.11g arauak sortzen dute). Bere garaian, Ingeniari Elektriko eta Elektronikoen Institutuak (IEEE) proposatu zuen 892.16a izena duen eta WiMAX izenaz ezagutzen den eta 2 eta 11 Ghz arteko frekuentzia-bandak estaltzea.	15/ WiMAX
Worm	Zizarea. Memoriako edo diskoko datu guztiak aurkitu eta pasaeran aurkitzen duen informazio guztia aldatzeko diseinatutako birusa. Programa batzuk egikari daitezke, baina, normalean, modu iraunkorrean galtzen da informazioa.	3/ Segurtasuna: birusak



## Zk. Buletina / Artikulua

<b>X.509</b>	Gako publikoaren azpiegiturarako (PKI) estandarra da. Lehen bertsioa 1988an agertu zen eta x.509v1 formatuan argitaratu zen; munduan PKI baterako egin zen proposamenik zaharrena da. Horrek, eta bere ISO/ITU jatorriak, x.509 gehien erabilitako PKI izatea egin dute. 1993an bi eremutan zabaldu zen; bigarren bertsio honek bereizi egin zituen ziurtagiriaren igoera eta erabiltzailea. 3. bertsioak estandarren funtzionaltasuna zabaldu zuen (ziurtagiriaren luzapenen definizioa).	1/ E-business eta e-commerce
<b>xDSL</b>	<i>Digital Subscriber Lines</i> . Kategoria nagusietako bi ADSL (ikusi 2. or.) eta SDSL. DSL teknologiek modulazio-eskema sofistikatuak erabiltzen dituzte datuak kobrezko kableetan enpaketzeko. Telefono-estazio batetik etxe edo bulego baterako konexioetarako bakarrik erabiltzen dira, baina ez bi telefono-estazioen artean.	2/ Bluetooth
<b>XML</b>	<i>eXtensible Markup Language</i> . Markatzeko lengoia hedagarria. W3C-ek garatu eta SGML-tik eratorritako lengoia. Bere helburua web-ean jasotako informazioa estandar eta formato komun bidez deskribatu ahal izatea da; horrela, bai Interneteko erabiltzaileek bai programa espezifikoek (agenteek) informazioa sarean bilatu, alderatu eta partekatu ahal izango dute. Teknikoki XML dokumentuak ASCII fitxategiak dira eta testua eta testu barruan egiturak identifikatzen dituzten <i>tag</i> -ak hartzen dituzte. Hala ere, HTML-k ez bezala, XML-k <i>tag</i> eta atributu pertsonalizatuak definitzea ahalbidetzen du, SGML-k bezala, baina honen konplexutasunik gabe. XML formatua HTML formatuaren oso antzekoa da, nahiz eta hura ez den honen hedapena edo osagarria ere.	1/ Java plataforma edo Microsoft 7/ XML
<b>Zerbitzu-ukatzea</b>	<i>DoS: Denial of Service</i> . Enpresa handien zerbitzariak azken aldian jasan duten eraso ezagunenetakoa da. Zerbitzariak eta <i>router</i> -ek eskari kopuru handiari erantzuteko duten ezintasuna baliatzen dute eraso hauek. Banda-zabalera nahikorik ez dutela da horren arrazoia, edo gainkarga egoera batean funtzionamendu normala eragozten duen egoeran gelditzen direla.	6/ Ahotsa IPren gainean
<b>Zizarea</b>	Ingelesezt; <i>worm</i> . Memoriako edo diskoko datu guztiak aurkitu eta pasaeran aurkitzen duen informazio guztia aldatzeko diseinatutako birusa. Programa batzuk egikari daitezke, baina, normalean, modu iraunkorrean galtzen da informazioa.	3/ Segurtasuna: birusak



## 2006-2009ko ITPn AURKI DITZAKEGUN AKRONIMOAK, SIGLAK ETA HITZ TEKNIKOAK



Gogoratu beharra dago termino hauetako asko AURRERA buletineta azaldu direla dagoeneko, eta, horregatik, buletin honen lehenengo zatian jaso dira. Gainontzekoen esanahia ondorengo lerrootan ematen saiatuko gara.

		Arloa
<b>AJAX</b>	<i>Asincronical javascript and xml.</i> Web aplikazio interaktiboak garatzea ahalbidetzen duen teknologia. Bezeroan exekutatzen dira, eta zerbitzariarekin komunikazioa asinkronoa izaten dute. Kodea berrerabili daitekeela da abantailetakoa bat.	Aplikazioak
<b>Archiving</b>	Dokumentu digitalen kudeaketari egiten dio erreferentzia eta, zehazkiago, haien artxibatzeari, Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomoentzako nahiz aplikazioentzako zerbitzu gisa. Zerbitzu honek zerbitzu gardena eman beharko luke. Adibide bat faktura elektronikoa da.	Azpiegitura teknologikoak- Dokumentuen kudeaketa
<b>ATEA</b>	Aplicación para la Tramitación de Expedientes Administrativos (Administrazio Espedienteen Izapideak egiteko Aplikazioa). Espedienteak kudeatzeko sistema integratu korporatiboa. Galdera honi erantzun behar dio: nola dago nirea? Hauek dira helburuak: herritarrei administrazio gardena eta irekia ematea, informazioa maila guztietan ustiatzea eta argitaratzea eta administrazio elektronikoa bultzatzea.	Antolakuntza - Barruko Kudeaketa
<b>ATM</b>	<i>Asynchronous Transfer Mode.</i> Transferentzia-modu asinkronoa. 'RDSI-BA'-rentzat ('B-ISDN') nazioartean zehaztutako transferentzia-modua da; informazioa zeluletan antolatzen da. ATM konmutadore baten ataka hauei konektatuta egon daiteke: beste konmutadore bat, lan-estazio bat edo zenbait estazioentzako kontzentratzaile bat, sare lokal bateko konmutadore bat, ahotsa eta/edo bideoa kapturatzeko edo digitalizatzeko gailu bat, etab. Gailu horietatik datorren informazio guztia gelaxketan kapsulatuta egongo da, eta gelaxka horiek ATM sareko aldi baterako alegiazko zirkuituetan edo alegiazko zirkuitu iraunkorretan bidaiatuko dute beren iturritik helburura, eta batek edo batzuek ATM konmutadoreak zeharkatuko dituzte. Alegiazko zirkuituetan oinarritutako zerbitzua izan arren, ATM sareak gelaxken sekuentzia zuzena soilik bermatzen du (ez dira inoiz ordenaz kanpo iritsiko), eta probabilitate txiki bat badago gelaxkak galtzeko, erroreak gainditzeko mekanismoak ez baititu ezarrita.	Komunikazioak
<b>Babesle</b>	Babeslea. Izen horrekin ezagutzen da Eusko Jaurlaritzako Informazioaren Segurtagarria Kudeatzeko Sistema (SGSI, ikus. 22. or) izango dena, Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoari dagokionez (DBLO, ikus. 10. or).	Segurtagarriaren kudeaketa
<b>Back-end, back-office</b>	Atzealdea. Sailetakoa aplikazioei egiten die erreferentzia; homogeneizazioa beharrezkoa da sarbideari dagokionez. Barruko aldea da, publikoki ikusten ez dena.	Azpiegitura teknologikoak
<b>Bluetooth</b>	Danimarka eta Norvegiako Harald Blatand erregearengandik dator izena; izan ere, haren izenaren ingelesezko itzulpena Harold Bluetooth (hortz urdin) da. Haririk gabeko komunikazioaren estandar orokorra definitzen duen araua da; erradiofrekuentzia-lotura baten bidez, ekipoen artean ahotsa eta datuak transmititzea ahalbidetzen du. Hauek dira arau honekin lotu nahi diren helburu nagusiak: ekipo mugikorren eta finkoen artean komunikazioa erraztea, horien artean kableak eta konektoreak kentzea eta aukera eskaintzea haririk gabeko sare txikiak sortzeko eta gure ekipo pertsonalen artean datuak sinkronizatzeko.	Komunikazioak Mugikortasuna
<b>BOT</b>	roBOT. Test-zerbitzu automatikoa. Interneten erabiltzen den programa, funtzio errepikakor bat egiten duena, hala nola, informazioa edo albisteak bilatzea, erosketen konparazioak egitea edo IRCn kanal bat irekita mantentzea. Web-ari dagozkion makro eta agente adimendun mota askotarako erabiltzen da terminoa.	Kudeaketako joerak

		Arloa
<b>BPM</b>	<i>Business Process Management.</i> Negozio-prozesuen kudeaketa sistematikoaren bitartez eraginkortasuna hobetzea helburu duen enpresa-diziplina.	Kudeaketako joerak
<b>BPO</b>	<i>Business Process Outsourcing.</i> Negozio-prozesuak kanpora ateratzea. Negozio-prozesu bat edo gehiago kanpoko hornitzaile baten esku uzten da; hark zerbitzu horiek kudeatu eta administratzen ditu, ezarritako kanporatze-kontratuaren arabera.	Kudeaketako joerak
<b>CORAME</b>	Comisión de Racionalización y Mejora de la Administración Pública (Administrazio Publikoa Arrazionalizatzeko eta Hobetzeko Batzordea); CORAMEren txostena izenez ezagutzen dena egin zuen 1994ko ekainaren 21ean.	Eusko Jaurlaritza
<b>CoS</b>	<i>Class of Service.</i> Zerbitzu-klasea. QoS-ekin (zerbitzu-kalitatea) eta ToS-ekin (zerbitzu-mota) lotuta dago.	Telekomunikazioak - Kalitatea
<b>DWDM</b>	<i>Dense Wavelength Division Multiplexing.</i> Uhin-luzeraren zatiketa bidezko multiplexazioa. Zuntz optikoaren bidez seinaleak transmititzeko teknika. Zenbait seinale garraiatzaile (optikoak) zuntz optiko batetik transmititzen dira, eta horietako bakoitzak laser-sorta baten uhin-luzera desberdinak erabiltzen ditu. Hala, zuntz optikoaren banda-zabalera eraginkorra biderkatu egin daiteke, bai eta komunikazio bidirekzionalak erraztu ere. Telekomunikazioetako operadoreentzat transmisio-teknika oso eraginkorra da, euren gaitasuna handitzea ahalbidetzen baitie kable gehiago jarri gabe eta zangarik ireki gabe.	Komunikazioak
<b>ECDN</b>	<i>Enterprise Content Delivery Network.</i> Edukiak banatzeko sarea; edukiak eta datuak sarearen ahalmena (bandaren zabalera) murriztu gabe banatzeko balio du. <i>E-learning</i> zerbitzuak edo bideoen banaketa-zerbitzuak emateko erabili daiteke.	Komunikazioak
<b>ECM</b>	<i>Enterprise Content Management.</i> Enpresa arloko edukiak kudeatzeko sistema. Sistema hauek honako funtzionalitate hauek eskaintzen dituzte: web interfazea; paperezko dokumentuak eskaneatzeko modulua; eskaneatutako elementuen OCR; testu osoaren bilaketa ia edozein fitxategi-formaturen gainean (office, pdf, tif, AutoCAD, html, xml...); txantilo personalizagarrien bitartez edukiak katalogatzea ( <i>profiling</i> ); intranet beraren barruan arlo korporatiboak, sail-arloak eta langile-arloak sortzeko aukera; nabigatzailearen barruan tresna ofimatikoak txertatzea norbanakoaren lanerako eta taldeko lanerako (agenda, e-maila, proiektuen kudeaketa...); dokumentuak erraz-erraz argitaratzeko aukera, hain zuzen ere, dokumentua sortzeko erabili zen tresna ofimatikotik zuzenean; Informazioaren Zabalkunde Selektiboa (DSI, dokumentu, karpeta, kategoria edo bilaketetan harpidetuz); dokumentazioaren onarpen-fluxuak sortzea ( <i>workflow</i> ); termino personalizatuaren zerrenden bidezko katalogazio sinplifikatua (thesaurus); eduki-kategoriak sortzea (taxonomiak); berehalako mezularitzaren bidez <i>on-line</i> eztabaidak abiatzea; bideo eta audio <i>streaming</i> ; WCM (web edukien kudeaketa) sistemarekin integratzea eta ERP eta/edo CRM sistemekin integratzea konektore estandarren eta/ edo EAI ( <i>Enterprise Application Integration</i> ) teknologien bitartez, adibidez, <i>Web Services</i> .	Kudeaketa hobetzea
<b>EFQM</b>	<i>European Foundation for Quality Management.</i> Kalitatearen Europako eredu. EFQM Bikaitasun Ereduaren xedea da erakundeei (enpresak nahiz bestelakoak) laguntzea beren artean hobeto ezagutu daitezen eta, ondorioz, beren funtzionamendua hobetu dezaten. Ereduaren oinarritzko ideia da erakundeei beren kudeaketa-sistema hobetzeko tresna ematea. Tresna ez da ez arau-emailea ez agindu-emailea: ez du esaten gauzak nola egin behar diren; beraz, erakunde bakoitzaren ezaugarriak eta kideen esperientzia errespetatu egiten ditu.	Kalitatea
<b>E-Learning</b>	Ikaskuntza elektronikoa, Interneten bidez.	Administrazio elektronikoa
<b>E-Partaidetza</b>	Partaidetza elektronikoa, Interneten bidez.	Administrazio elektronikoa
<b>E-Izapidetzea</b>	Izapidetze elektronikoa, Interneten bidez.	Administrazio elektronikoa
<b>E-Transakzioa</b>	Transakzio elektronikoa, Interneten bidez.	Administrazio elektronikoa

		Arloa
<b>Firewall</b>	Suebakia. Sare bat segurtasunari dagokionez fidagarria ez den beste sare batetik babesteko moduetako bat da. Hainbat mekanismo daude suebakia- ren funtzioak ezartzeko, baina, oro har, trafikoa blokeatzeko mekanismo baten eta trafikoa baimentzeko beste mekanismo baten batura bezala ikus daiteke. Suebaki batzuek garrantzi berezia ematen diete lehenengoari, eta beste batzuk, berriz, batez ere bigarrenean oinarritzen dira. Suebakiak insta- latzeko arrazoa sare pribatu bat arrotzengandik babestea da; baina sueba- kiak, era berean, kanpora ateratzea baimentzen du. Kasu askotan, suebakia- ren xedea da baimendu gabeko erabiltzaileak sare horretako baliabideeta- rako sarrera izan dezaten saihestea eta, maiz, informaziorako sarrera ez baimendua saihestea ere.	Komunikazioak
<b>Frame Relay</b>	X.25-en ordezkoa, azkarragoa. Luzera aldakorreko paketeak. OSI-ren 2. mailan, esteka ( <i>Data Link</i> ). Linea eta bermatutako gutxieneko emaria kontratzen da. Alegiazko zirkuitu iraunkorrak (PCV). Sare-komunikazioak eremu digitaletara eta zuntz optikoaren eremura mugitzen diren heinean, lehen zeuden pakete-konmutazioko metodo analogikoez baino errore-azterketa gutxiago behar dituzten teknologia berriak azaltzen dira. <i>Frame relay</i> pakete-konmutazio azkarraren teknologia aurreratua da, luzera aldakorreko pakete digitalena. Teknologia honekin, diseinatzaileek X.25-eko zenbait funtzio (kontabilizazioa eta azterketa) ezabatu egin di- tuzte, zuntz optikoko zirkuituen inguru fidagarri eta seguruagoan beharrez- koak ez direnak, alegia. <i>Frame relay</i> esteka mailan ( <i>Data Link</i> ) luzera alda- korreko bilbeak transmititzeko alegiazko zirkuitu iraunkorra (PVC) erabil- tzen duen puntutik punturako sistema da. <i>Frame relays</i> sarean datuen <i>switch</i> bati alokatutako linea digitalaren gaineko sare batean bidaiatzen du datuak. <i>Frame relays</i> sarea igarotzen du eta helmugako sarera iristen da.	Komunikazioak
<b>G2...</b>	Administrazio elektronikoa erabilitako zenbait akronimo. «G»-k <i>Govern- ment</i> adierazten du, gobernu. 2, ingelesez, <i>two</i> , «to» bezala irakurtzen da, eta hurbiltze adlatiboa (norantz) deklinabide-kasuaren parekoa da. Gero beste sigla bat jartzen da kasuan kasuko zerbitzu elektronikoa hartzailerak adierazteko, hurrengo sarreretan adierazten den moduan.	Administrazio elek- tronikoa
<b>G2B</b>	<i>Government to Business</i> . Gure kasuan, Eusko Jaurlaritzaren administrazio- oaren eta bere hornitzaileen arteko prozesuen hobetzeari egiten dio errefe- rentzia. Laburbilduz, EJrekin negozioak dituen edozein agentek behar duen informazio guztia aurkitu ahal du eta, ahal izanez gero, izapideak modu elektronikoan egingo ditu.	Administrazio elek- tronikoa
<b>G2C</b>	<i>Government to Citizen</i> . Herritarra da zerbitzu publikoen “bezeroa”. Estuki lotuta dauden zenbait kontzeptu daude, hala nola: multikanal, multisarbide, usagarritasun, erabilerratasun, zerbitzuaren aurkezpen-eredua, etab.	Administrazio elek- tronikoa
<b>G2E</b>	<i>Government to Employee</i> . Enplegatu publikoak administrazio elektronikoa- ren arrakastarako funtsezko faktoretzat hartzen ditu. Enplegatu publikoaren atariari ere erreferentzia egiten dio, bai eta elkarlaneko ingurunearen gara- penari ere. Prestakuntza alderdi garrantzitsua da (e-learning).	Administrazio elek- tronikoa
<b>G2G</b>	<i>Government to Government</i> . Administrazioen arteko informazio-trukaketari, baterako ekimenak bultzatzeari eta e-Administrazioarekin lotutako hainbat alorretako lankidetzari egiten dio erreferentzia. Ikus beherago definitutako “Puntu neutroa” terminoa. (Ikus “ elkarreragingarritasuna”, buletin honen 5. or.)	Administrazio elek- tronikoa
<b>Gap</b>	Zuloa, hutsa, espazioa, hutsunea, tartea.	Negozioetara bidera- tuta
<b>Geremua</b>	Eusko Jaurlaritzak garatutako <i>framework</i> -a. <i>Geremua</i> aplikazio baten eta sistemako softwarearen arteko software-geruza da (sistema eragilea, makina birtuala, datu-baseak, <i>middleware</i> ); aplikazio askori beren ohiko arazoak konpontzen laguntzen die. Hala, garapen-denborak bizkortzea eta softwa- rearen kalitatea, baita errendimendua ere, hobetzea lortzen da, diseinu- eta garapen-praktika onenen alderako arkitektura-joea markatzen baitu.	Aplikazioak
<b>GIP</b>	Gestión Integrada de Personal (Langileen Kudeaketa Integratua). Eusko Jaurlaritzako Langileen Kudeaketa Integratuarentzako aplikazioa.	Aplikazioak
<b>HCM</b>	<i>Human Capital Management</i> . Giza kapitalaren kudeaketa integralerako SAPEk sortutako programa (ikus 22. or.) .	Aplikazioak
<b>HotSpot</b>	<i>Hotspot</i> -ek «puntu beroa» esan nahi du, eta bertan, sarbide-puntu batek ( <i>access point</i> ) haririk gabeko Internet hornitzaile baten bitartez sareko zer- bitzuak eskaintzen ditu. <i>Hotspot</i> -ak publikoak edo pribatuak izan daitezke.	Komunikazioak


## Arloa

<b>HSDPA</b>	<i>High Speed Downlink Packet Access</i> . 3GPP <i>release 5</i> -aren zehaztapenetan jasotako UMTS/WCDMA teknologia espektralaren optimizazioa da, eta informazio-transferentziaren gehieneko ahalmena nabarmen hobetzen duen (14 Mbps erdietsi arte) beherako loturan ( <i>downlink</i> ) partekatutako kanal berri batean datza. Batez beste 1 Mbps-ko <i>throughput</i> tasak jasaten ditu. Teknologia mugikorraren hirugarren belaunaldiaren (3G) garapena da, 3.5G deiturikoa, eta laugarren belaunaldiaren (4G, sareen etorkizuneko integrazioa) aurreko urrats gisa hartzen da.	Komunikazioak
<b>IKUS</b>	Eusko Jaurlaritzako Aurrekontuen Kudeaketarako aplikazioa.	Aplikazioak
<b>Interwoven</b>	Gaur egun euskadi.net atarian erabiltzen den eduki-kudeatzailea.	Aplikazioak
<b>IPS</b>	<i>Intrusion Prevention System</i> . Arrotzak prebenitzeko sistema. Aditu askok diote terminoa berez anbiguoegia dela eta segurtasun-kontrol informatiko asko barne hartzen dituela. Ildo horri jarraiki, <i>firewall</i> -a arazorik gabe izan liteke IPS bat (zeharka, arrotzak sartzea prebenitzen du). Baina IPS terminoak, Gartner Group-ek erabiltzen duen testuinguruan, arrotzak detektatzeko sistema duen (IDS, bere ingelesezko siglengatik) iragazki-konbinazio ( <i>firewall</i> ) bati egiten dio erreferentzia. Mota honetako sistematzako merkatuteknia-argudiorik nagusia balizko "pro-aktibitatea" da. Balizko beste abantaila batzuk hauek dira: gorabeheren aurrean automatikoki erreakzionatzeko ahalmena (sistemak filtro berriak aplikatzen ditu garatzen ari diren erasoak detektatzen dituen heinean), monitoretza minimoa (sistemak ez du hainbeste dedikazio eskatzen IDS tradizional batekin bezala); horrek, ondorioz, sistema horiek administratzeko eta operatzeko baliabideetan inbertsio gutxiago egin behar izatea eragingo luke.	Segurtasuna
<b>Linux</b>	<i>Linux</i> sistema eragilea da, <i>Unix</i> -ekin bateragarria. Bi ezaugarri oso berezik merkatuan aurki ditzakegun gainerako sistemetatik desberdintzen ditu: lehenengoa, librea dela; horrek esan nahi du <i>Linux</i> erabiltzeagatik ez diogula softwarea egiten duen etxeari inolako lizentziarik ordaindu behar; eta bigarrena, sistema iturburu-kodearekin batera datorrela. Sistemaren nukleoak ( <i>kernel</i> ) eta sistema erabiltzea ahalbidetzen duten programa/biblioteka askok osatzen dute sistema. Programa eta biblioteka horietako asko GNU proiektuari esker izan dira posible; horregatik, <i>Linux</i> -i <i>GNU/Linux</i> esaten diote askok, sistema nukleoak nahiz GNU proiektuak sortzen duen softwarearen zati handi batek osatzen dutela nabarmentzeko. <i>GNU General Public License</i> -en bitartez banatzen da <i>Linux</i> , eta, hortaz, iturburu-kodeak beti eskuragarri egon behar du eta edozein aldaketak edo lanek lizentzia hori eraman behar du.	Aplikazioak
<b>Mantentzea</b>	Unitate funtzionala bere eginkizuna betetzea ahalbidetzen duen egoeran mantendu edo berrezartzera bideratutako jarduera oro. Zuzentzailea: akatsak zuzentzeko balio du. Ebolutiboa: ekipo logikoa aldatzen du kanpoko ingurura egokitzeko. Prebentiboa: ekipo logikoa aldatzen du kanpoko inguruan gerta daitezkeen aldaketetara egokitzeko.	Proiektuak
<b>NGN</b>	<i>Next Generation Network</i> . Belaunaldi berriko sarea. (adibidez, VOip)	Azpiegitura teknologikoak
<b>OSS</b>	<i>Open Source Software</i> . Kode irekiko softwarea. Garapen-eredu hau komunitatea sortzeko eta iturburu-kodea partekatzeko ideien inguruan mugitzen da. Kode irekiko softwarea ez da software librearekin (ikus 14. or.) nahastu behar.	Aplikazioak
<b>Out of band</b>	Sostenguaren kudeaketa-sarea. Erabilera normaleko frekuentzia edo kanalez kanpo frekuentziak edo kanalak erabiltzen dituen transmisio-sistema (errore-egoeretan erabiltzeko).	Komunikazioak
<b>PESI</b>	Plan Euskadi en la Sociedad de la Información (Euskadi Informazio Gizar-tean Plana); plan horretatik eratortzen dira, besteak beste, Informatika eta Telekomunikazio Plana (ITP-PIT) eta Administrazio eta Gobernu Elektronikoen Plan Estrategikoa (PEAGE).	Eusko Jaurlaritza

		Arloa
<b>PKI</b>	<i>Public Key Infrastructure</i> . Gako publikoko azpiegitura. Gako publikodun kriptografian oinarritzen da PKI; kriptografia horren jatorria Diffie eta Hellman-ek 1976an argitaratutako asteroko artikulua da. Izan ere, artikulua horretan, eragiketa kriptografikoetarako gako pareta erabiltzearen ideia iraultzailea azaltzen da: gako publiko bat, denek ezagutzen duguna, eta gako pribatu bat, berau esleitu zaion erabiltzaileak soilik ezagutzen duena. Edozein pertsonak enkriptatu dezake mezua bat gako publikoa erabiliz, gako denek ezagutzen baitugu, baina gako pribatua daukanak soilik deskriptatu ahalko du. Era berean, gako pribatuarekin enkriptatutako mezua bat hura duenak soilik enkriptatu dezake, baina gako publikoa ezagutzen duen edonork deskriptatu dezake.	Segurtasuna
<b>PLATEA</b>	PLAforma Tecnológica para la E-Administración (E-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa). 2003-2005eko Informatika eta Telekomunikazioen Planak Eusko Jaurlaritzako Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzak egin zuen; planaren arabera, e-Administrazioaren azpiegitura abian jarri behar da, eta horretarako, oinarritzko elementu korporatibo horizontalen gunea osatuko duten modulu eta sistema komunak eraiki behar dira. Modu horretan, estrategia horretarako hainbat elementu zehaztu eta eraiki dira, eta denek batera, oinarritzko Plataforma Teknologikoa osatzen dute. Administrazio Elektronikoaren zerbitzuak eskaintzearen: integrazio-azpiegitura; edukia, atariak eta katalogazio-ardatzak kudeatzeko tresnak; eta izapidetze telematikoen azpiegitura-sistemak.	Azpiegitura teknologikoak
<b>Puntu Neutroak</b>	Edo hirugarrenen frontala. Informazio-sistemak partekatze zona, bai eta eragiketak partekatzea ere, zerbitzuen hornitzaileekin, herritarrekin eta Eusko Jaurlaritzarekin harremana duten bestelako agenteekin. <i>Extranet</i> arkitekturaren eboluzioa da.	Elkarreragingarritasuna — Estranetak
<b>RAS</b>	<i>Remote Access Service</i> . Urruneko sarbidearen zerbitzua. Eusko Jaurlaritzaren Administrazio Sare Korporatibora hainbat puntutatik sartzea ahalbidetzen du sare publikoak erabiliz (TSK, RDSI, VPN, ...)	Komunikazioak
<b>RFID</b>	<i>Radio Frequency Identification</i> . Irrati-frekuentzia bidezko identifikazioa. Inbentarioen eta katalogazioen arloko irtenbideentzako baliozkoa.	Azpiegitura teknologikoak
<b>SAML</b>	<i>Secutity Assertion Markup Language</i> . <i>Token</i> -etan oinarritutako informazio-transmisio formatua, identitateak eta autentifikazioak egiaztatzeke.	Azpiegitura teknologikoak - Segurtasuna
<b>SAP</b>	<i>Systeme, Anwendungen und Produkte</i> . Sistemak, Aplikazioak eta Produktuak, egoitza Walldorf-en (Alemania) duen enpresa; enpresentzako software-aplikazioen munduko lehenengo hornitzailea da.	Aplikazioak
<b>SGSI</b>	Sistema de Gestión de la Seguridad de la Información (Informazioaren Segurtasuna Kudeatzeko Sistema). Ingelesez, <i>Information Security Management System (ISMS)</i> . Informaziotzat hartzen da erakunde baten esku dagoen dokumentazio guztia, dokumentuak gordetzeko edo izapidetzeko modua (idatziz, diagrametan irudikatuta edo paperean inprimatuta, elektronikoki gordeta, irudietan proiektatuta, fax edo posta bidez bidalita, edo baita ahoz transmitituta ere bertatik bertarako elkarrizketan edo telefonozko elkarrizketan), jatorria (erakunde bertakoa edo kanpoko iturrietako) eta egin zeneko data edozein dela ere.	Segurtasunaren kudeaketa
<b>Single Sign-On</b>	Erregistro bakarra. Pasahitz bakarra erabiltzea autentifikazio guztietarako. Eusko Jaurlaritzak gaur egun erabiltzen duen XL-Net izeneko autentifikazio-sistemaren eboluzioa izango litzateke.	Azpiegitura teknologikoak — Segurtasuna
<b>SIPCA</b>	Sistema Integral de Pagos y Cobros de la Administración (Eusko Jaurlaritzaren Administrazioaren Ordainketen eta Kobrantzen Sistema Integratua). Sistema honen barruan Online Ordainketa proiektua garatu da ere, gaur egun, «Nire ordainketa» izenekoa.	Aplikazioak
<b>SLA</b>	<i>Service Level Agreement</i> . Zerbitzu-mailako akordioak. Kanpoko hornitzaile batekin zerbitzuren bat kanpora ateratzea negoziatzen denean gertatzen dira akordio hauek (BPO, 1kus 17. or.). Eman beharreko zerbitzuari dagokionez, hornitzaile horren betebeharrak eta konpromisoak mugatzeko balio dute. Gobernuaren eta gobernuak garatutako zerbitzuen erabiltzaileen artean ere gerta daiteke.	Kudeaketako joerak

		Arloa
<b>SOA</b>	<i>Service Oriented Architecture</i> . Zerbitzuetara bideraturiko arkitektura; prozesuetara bideraturiko arkitekturatik zerbitzuetara (adierarik zabalenean) bideratutako beste batera igaro da. Adibidez, e-Administrazioarentzako Plataforma Teknologikoak (PLATEA) zerbitzu-multzo bat hornitzen du, Eusko Jaurlaritzako sailek edo erakunde autonomoek erabil ditzaketenak.	Joera teknologikoak
<b>Sourcing</b>	Zenbait zerbitzu hornitzaileei erostea; adibide moduan, urruneko kokalekuetan, ekipoak erosi eta hirugarrengoko bati mantentze-lana kontratatzeak aukera dago.	Azpiegitura teknologikoak
<b>SOX</b>	<i>Schema for object oriented xml</i> . <i>xml</i> -ren zehaztapen oinordekoa da, objektuetara bideratzearen ezaugarri batzuk ematen dituena. Programazio-lengoaia batzuekin <i>xml</i> -ren elkarrengarritasuna handitzen saiatzen da.	Antolakuntza
<b>SSON</b>	<i>Single Sign-On</i> . Pasahitz bakarra erabiltzea autentifikazio guztietarako. Gaur egungo XL-Net izeneko autentifikazio-sistemaren eboluzioa izango litzateke.	Azpiegitura teknologikoak — Segurtasuna
<b>TIC</b>	Tecnologías de la Información y de la Comunicación (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak –IKT–). IKTEk informazioa administratzeko beharrezko sistema-multzoa biltzen dute, eta bereziki informazio hori bihurtu, gorde, administratu, transmititu eta bilatzeko beharrezko ordenagailuak eta programak. Informazioaren gizarterantz egin ziren lehenengo urratsak telegrafo elektrikoaren asmakuntzaren garaikoak izan ziren, eta ondoren etorri ziren telefono finkoa, irrati-telefonía eta, azkenik, telebista. Internet, telekomunikazio mugikorra eta GPS gailua informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriztat har daitezke.	Teknologiak
<b>Topagune</b>	Herritarren partaidetzarako plataforma berria Eusko Jaurlaritzaren atarian.	Azpiegitura teknologikoak — E-Partaidetza
<b>UMTS</b>	<i>Universal Mobile Telecommunications System</i> . Telekomunikazio mugikorraren sistema unibertsala. UMTS siglak erreferentzia egiten dio kalitate altuko haririk gabeko multimedia komunikazioak sortzeko teknologia integratuen multzoari. Telefonía mugikorraren hirugarren belaunaldiko estandarra da; gaur egun dauden bateraezintasunarekin eta GSM sarearen saturazioarekin bukatu nahi du, eta datuen transmisio-abiadura handitu nahi du, multimedia telefonía egi bihurtzeko.	Telekomunikazioak
<b>WCM</b>	<i>Web Content Management</i> . Edukien kudeatzailea web interfazeen bitartez. WCM baten oinarriko helburua da informazioaren erabileran esku hartzen duten prozesuen integrazioa eta automatizazioa handitzea Interneten bitartez. Hori lortzeko, zenbait erraztasun eskaintzen ditu, hala nola: jatorri desberdinetatik datuen integrazioa ahalbidetzea; informazioaren maneia beste erabiltzaile batzuen esku uztea, baina betiere kontrol nagusia mantenduta; edukia aurkezpenetik bereiztea, haren sendotasuna bermatuta; sarean informazioa sartzeko beharrezko ikaskuntza saihestea; metadatuak sarbidea erraztea edukiak sortzeko edo aldatzeko mementoan; edozein unetan berrezarri daitekeen informazio historikoa gordetzea.	Kudeaketa hobetzea
<b>WebAnalysis</b>	Audientzien jarraipena egiteko eta web baliabideen monitorizaziorako tresna da; adibidez, web-aren erabileraren estatistikak lortzen ditu. Dauden atariek nahiz intranet korporatiboak osatu beharko dute.	Azpiegitura teknologikoak — Monitorizazioa
<b>Wi-Fi</b>	<i>Wireless-Fidelity</i> -ren akronimoa. WLAN ( <i>wireless lan</i> , haririk gabeko sarea) edo IEEE 802.11 estandarra ere deitzen zaio. WIFI teknologiaz hitz egiten denean, benetan <i>Wi-Fi Alliance</i> -i egiten zaio erreferentzia. <i>Wi-Fi Alliance</i> irabazi asmorik gabeko erakundea da, eta bere barnean fabrikatzaile-multzo handi bat hartzen du. Bere helburua sare lokaletan haririk gabeko teknologiaren erabilera bultzatzea da. Bestalde, IEEE 802.11 estandarra oinarri hartuta, fabrikatzaileen arteko bateragarritasuna bermatzen du. Haririk gabeko teknologiak ekarri dituen abantailak agerikoak dira: merkeagoa izatea eta LAN sareak ezartzeko erraztasuna, aplikazioak eta gailu mugikorrek ugaltzea, konektagarritasuna duten espazioak berehala sortzeko aukera, erabiltzaileen mugikortasuna, etab. Funtzionaltasun horri guztiari batu egin behar zaio abiarazteko behar diren gailuen kostu baxua.	Komunikazioak







## KONTRATAZIO PUBLIKO ELEKTRONIKOA ABIAN DA

Kontratazio-espeditenteen izapideak elektronika bidez egitea errealitate ukazina da gaur egun. Gero eta enpresa gehiagok erakusten dute interesa eskaintza egiteko modu berri honetan, askoz ere erosoagoa baita beraientzat. Espedienteaz arduratzen direnek ere balioesten dute sinplifikazioa espeditenteen

Lerro gutxi batzuetan islatuko dugu lehenengo balorazio kuantitatiboa: alde batetik, aurreko 2006. urtean izan ziren kontratazio elektronikoko ikastaroena; bestetik, kontratazio elektronikoko publikoaren moduluaren bitartez prestatutako espedienteena; eta, azkenik, azken hilabete hauetan informazio-bileretara joan diren enpresen kopuruarena.

Trebakuntzako 9 ikastaro eman dira kontratazio-teknikariei zuzenduta, eta ikastaro horietan 101 pertsonak hartu dute parte guztira.

Eusko Jaurlaritzako 11 sailek bidali dituzte beren langileak trebakuntza-ikastaroetara. Trebatutako langileak dituzten sailen zerrenda ondorengo hau da:

- Ogasuna eta Herri Administrazioa : 47.
- Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza : 4.
- Herrizaingoa : 6.
- Industria, Merkataritza eta Turismoa : 4.
- Etxebizitza eta Gizarte Gaiak : 4.
- Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa : 1.
- Osasuna : 7.
- Kultura: 2.
- Lurralde Antolamendua eta Ingurumena : 8.
- Garraioa eta Herri Lanak : 2.
- Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura : 4.

Bi sailek bakarrik ez dute oraindik trebatutako langilerik :

Lehendakaritza

Lehendakariordetza

Mes	Curso	L	M	X	J	V
Enero	1	15	16	17	18	19
		22	23	24	25	26
Febr	2	29	30	31		
					1	2
	3	5	6	7	8	9
		12	13	14	15	16
Marzo		19	20	21	22	23
		26	27	28		
	4				1	2
		5	6	7	8	9
	5	12	13	14	15	16
	19	20	21	22	23	
	26	27	28	29	30	



Erakunde autonomoetako eta zuzenbide pribatuko ente publikoetako 12 pertsonak parte hartu dute trebakuntza-ikastaroetan (erakunde autonomoak 5 izan dira). Honako hauek dira :

- IVAP HAEE - Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea
- Euskal Herriko Polizi Akademia
- EUSTAT - Euskal Estatistika Erakundea
- EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Erakundea
- OSALAN - Laneko Seguratasun eta Osasunerako Euskal Erakundea

Beste alde batetik, 2007ko lehenengo hiruhilekoko ikastaroak planifikaturik daude dagoeneko, honekin batera doan taulan islatu den moduan. Horieta izena emateko epea jadanik irekita dago.

Ikastaro horiek Kontratazio Publiko Elektronikoko Ereduaren Idazkaritza Teknikoak antolatu ditu, HAEEekin batera, eta ikastaroak kontratazio-prozesuetan parte hartzen duten langileei zuzenduta daude (aurrekontuen kudeatzaileak, kontratazio-mahaiko idazkariak, administrazioko langileak eta kontratazio-espeditenteen kudeatzaile teknikariak, informatikariak, etab.). Gai honen inguruko informazio gehiago nahi izanez gero: [kontratazioa@ej-gv.es](mailto:kontratazioa@ej-gv.es)

2006. urtean 29 espediente prestatu dira Kontratazio Publiko Elektronikoko Ereduaren bitartez eskaintzan ateratzeko. Espediente horien aurrekontuen batura 49.248.640 eurokoa da guztira.

Azken hilabeteetan 830 enpresa baino gehiagok parte hartu dute Euskadiko 3 Parke Teknologikoetan egin diren informazio-bileretan.

Eusko Jaurlaritzako hornitzaile nagusiek espero dute epe motzean kontratazio elektronikoa espediente-kopuru handiagora zabaltzea. Geroz eta enpresa gehiagok deitzen dute galdetuz ea oraindik zergatik ezin den elektronika bidez parte hartu HAAN argitaratzen diren lehiaketa askotan.



### Ikastaroen formatea

**Taldeak:** 15 pertsona

**Iraupena:** 20 ordu (6x3+1x2)

### Ordutegia:


#### Saioak

1-6 11:00-14:00  
7 11:00-13:00

**Tokia:** 10. gela (M Eraikina)

### Irakasleak:

- José Ignacio Familiar
- Ángel Cancelo
- Aitor Orobengoa





24. zk.

2006ko abendua

## SAAS: Software as a Service

Softwarea banatzeko modua aldatu egin da denborak aurrera egin ahala: hasieran, softwarea disketeetan jasotzen zen, gero disko trinkoetan eta ondoren behera-kargatzeen bidez. Edonola ere, metodo horiek guztiek ezaugarri komun bat zuten: softwarea zure ekipoa instalatzen zen. Orain datorren softwarea desberdina da, gero eta aplikazio gutxiago etorriko baitira disko batean eta zerbitzu gisa ematen hasiko baitira; horri "*Software as a Service*" ("softwarea zerbitzu gisa") deitzen zaio. Interneten, normalean web araketaile baten bidez, banatzen den zerbitzu batean harpidetuko dira SaaS-en bezeroak. SaaS aplikazio gehienak hileroko eskuratu ahalko dira tarifa bat ordaindu eta erabiltzaile bakoitzeko lizentzia bat izaten bada. Hala ere, SaaS aplikazio batzuk publikitatearen bitartez finantzatu dira eta dohain eskuratu ahalko dira.

SaaS-ek, nola ez, alde onak eta txarrak dauzka:

Harpidetza bitartez egiten den salmenta denez, erabilitako zerbitzuengatik soilik ordaintzen da, eta kontratua bertan behera uztearen kasuan, penalizazio-klausularik ez sinatzea ziurtatu behar du bezeroak, bai eta datuak berreskuratzea ahalbidetzea ere.

Merkeagoa izatea gerta daiteke, zerbitzaririk eta langile laguntzaririk ez baitago. Azken batean, kontuak egin behar dira. Datuak hirugarren baten zerbitzarietan gordetzen dira, eta, beraz, segurtasunaren arazoa hirugarren horren kontua da. Gainera, informazio hori edozein kokalekutatik eskuratu ahalko da.

Laburbilduz, softwarea zerbitzu gisa softwarea garatu eta banatzeko eredu gisa zehaztu daiteke, eta, eredu horretan, enpresa hornitzaileak bere instalazioetan ditu aplikazioak eta bertatik administratzen ditu. Hala

eta guztiz ere, azken urteotan, eredu horri alderdi eta behar berriak gaineratu zaizkio, hala nola, pertsonalizazioa, lankidetzak eta moldagarritasuna.



## Sakelako telefonoek ez dute minbiziaren sortzen

Minbiziaren Epidemiologiako Danimarkako Institutuak jakitera eman ditu minbizi-arriskuaren eta telefonia mugikorraren arteko loturari buruzko azterlan baten emaitzak, eta ondorioa garbi-garbia da: baztertu egin behar da minbiziaren eta telefonia mugikorraren arteko arrisku-lotura oro.



Azterlan horren balio erantsia, gainera, azterlanaren beraren iraupena eta aztertutako pertsona-kopurua dira; alde batetik, ikerketak 20 urte baino gehiago iraun du, eta, bestetik, azterketaren oinarri gisa, 420.000 pertsona baino gehiagoren osasunaren bilakaeraren jarraipen zehatza egin da. Nazioarteko beste erakunde batzuek, esaterako, Osasunaren Munduko Erakundeak (OME) eta, estatuan, Osasun Ministerioak, azterlanaren ondorioa baietsita zuten dagoeneko.

Espainiako Osasun Ministerioak adierazten duenez, gainera, "antenen emisioen inguruan nahasmen handia dago", eta esaten duenez, "gero eta antena gehiago egon, orduan eta txikiagoa izango da behar duten potentzia (...), eta, era berean, funtzionatzeko potentzia txikiagoa beharko du sakelako telefonoak"; hortaz, ondorioztatzen duenez, "ez dago arrazoirik antenak urruntzea eskatzeko". Telefonia mugikorra errugabetzen duten txostenak gero eta nabarmenagoak dira, baina ez dira gai izan hainbat herritar-talde konbentzitzeko, antena zelularren hedatzearen kontrako protestekin jarraitzen baitute. Osasun Ministerioak aipatzen du herritarrei ematen zaien informazioa hobetu egin beharko dela, XXI. mendeko bizitza-kalitatea hobetzen gero eta nabarmenago laguntzen duen teknologiarekin aurreiritzirik gabe bizi daitezen.

Nolanahi ere, telefonia mugikorraren ospea agerikoa da; herritarren eguneroko bizitzan erabat sartu da eta, kasu batzuetan, balio handiko laguntza-tresna gisa erabiltzeko balio du.

